



hariak

2017ko azaroa

Recreando la educación emancipadora



sakonean en profundidad solasean en diálogo ekin
lanari hay alternativas begirada konprometituak
miradas comprometidas matxino artean en rebeldía



Argitalpen honek Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren (GLEA) babesia izan du, honako proiektu honen markoan **Hariak ehunduz**. *Unibertsitatean hezkuntza kritiko eta emantzipatzailea pixkanaka gehitzeko estrategia, tresnak eta prestakuntza. Topaketa gizarteko eta hezkuntzako eragileekin* (2015). Testuen edukia Hegoaren erantzukizunpekoa da, eta ez dute nahitaz GLEAren iritzia islatzen.

Argitaratze kontseilua:

Inmaculada Cabello Ruiz

Juanjo Celorio Díaz

Sandra Dema Moreno

Alejandra Boni Aristizabal

Joseba Sainz de Murieta Mangado

Gema Celorio Díaz

Amaia del Río Martínez

Lege-gordailua: BI-1805-2016

Diseinua eta Maketazioa: Marra, S.L.

Azaleko argazkia:

Joseba Sainz de Murueta



Argazkia 97 Irratiko lokaletan egin da. Bilboko irrati libre honek komunikazio-proiektu independentea eta kalitatezkoa bultzatzen du, eta software askea baino ez du erabiltzen. Eskerrik asko zuen laguntzagatik.

Finantzatzailea:



Argitaratzailea:



UPV/EHU

Zubiria Etxea Eraikina

Agirre Lehendakariaren etorbidea 81 • 48015 Bilbo

Tel.: 94 601 70 91 • Faxe: 94 601 70 40

UPV/EHU

Arabako Campuseko Liburutegia

Nieves Cano kalea 33 • 01006 Vitoria-Gasteiz

Tel.: 945 01 42 87 • Faxe: 945 01 42 87

UPV/EHU

Carlos Santamaria Zentroa

Elhuyar Plaza 2 • 20018 Donostia-San Sebastián

Tel.: 943 01 74 64

www.hegoa.chu.eus

Aldizkari hau paper ekologikoan inprimatu da, eta horren lehengaia baso-kudeaketa iraunkorraren bitartez eskuratu da.

Zure iritzia interesatzen zaigu.

Galdetegi labur honi erantzutea eskertuko genizuke.

<http://hariakhegoa.limequery.com/622675?lang=eu>



Agiri hau Creative Commons-en lizentziapean dago. Baimena duzu lan hau kopiatu, banatu eta publikoki hedatzeko, betiere, kontuan hartuta lanaren kredituak adierazi behar dituzula, eta ezin duzula merkataritza-xedeetarako erabili. Ezin da lan honetatik eratorritako obrarik aldatu, eraldatu edo sortu. Lizentzia, osorik: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/es/>

aurkibidea



2

editoriala

Botere-harremanak eta jakintzarekiko duten lotura

Sandra Dema Moreno

4

sakonean

Mundua berriz pentsatzea hegaletatik

Rosario González Arias

10

solasean

Jakituria-boterea erlazioa emantzipazio-gakoan pentsatzea

Dolores Juliano Corregido eta Begoña Zabala González

18

ekin lanari

Sorkin. Ezagutzak itzulikatzen, bizitzak erdigunean jartzeko

Vanesa Calero Blanco eta Teresa Sancho Ortega

Nozio komunak: autotrebakuntzako proiektu bat, gizarte mugimenduetatik abiatuta eta gizarte mugimenduentzat

Nozio Komunak Madril

ULEX. Autoprestakuntzako esperientzia bat Malagan

Curro Machuca

Palentziako Herri Unibertsitatea: herritarrek ezagutzak partekatzeko gunea

Judith Quintano Nieto eta Agustín González Gutiérrez

26

begirada konprometituak

zinema/dokumentalak El cuento de la criada • The Wanted 18

argitalpenak Participar desde los feminismos. Ausencias, expulsiones y resistencias

• Barbarismos queer y otras esdrújulas

erakundeak Transnational Institute • JASS Asociadas por lo Justo

ezinbesteko agenda Latinoamerikako eta Karibeko 14. Topaketa Feminista

• Ingumenaren eta Gizartearen XII. GEMAS'2018 Tailerra

30

matxino artean

Obedituz Agindu

Nazio Askapenerako Armada Zapatista

sakonean en profundidad solasean en diálogo ekin
lanari hay alternativas begirada konprometituak
miradas comprometidas matxino artean en rebeldía

Botere-harremanak eta jakintzarekiko duten lotura

Boterea zerk eratzen duen eta haren dimentsioa zein den zehaztea arazo filosofiko eta politiko konplexua da, eta hainbat planteamendu teorikotatik landu izan da. Botere-harremanak dira denboran zehar izan diren gizarte-antolamendu sistema desberdinen oinarria, eta erresistentzia modu ugari sorrarazi dituzte gizateriaren historian zehar. Sistema horiek, hala nola, kapitalismoak, sexismoak edo kolonialismoak, berdintasun-eza sortzen dute, eta gure bizitzari eragiten diote. Existitu eta bizirik irauteko ditugun aukerak desberdinak dira hainbat faktoreren arabera; besteak beste, klase soziala, etnia, adina, aukera sexuala, edo planetako zein eremutan bizi garen.

Hala ere, batzuen iritziz, boterea ez dago egiturazkoak diren alderdietan bakarrik, baizik eta harreman sozial guztietan agertzen den elementua da. Iritzi horretakoak dira Michel Foucault eta Antonio Gramsci, eta beraien analisisetan, jakintzaren eta boterearen arteko lotura uzten dute agerian. Ezagutza edo jakintza ez da neutroa; botereak zeharkatzen du beti. Paradigma kritikoaren arabera, hegemoniaren eta emantzipazioaren arteko tentsio eta gatazken ondorioz eraikitzen da ezagutza, eta haiek erabakitzen dute azkenean zein diskurtso diren zilegi eta zein ez. Autore horien iritziz, indarra edo mehatxua erabilita lortzen den nagusitasunak ez du irauten ideia eta sinesmenen bitartez lortzen denak bezain beste, eta bigarren nagusitasun mota hori lortzeko, gizarte-interakzioa, eskola edo hedabideak baliatzen dira.

Plano teorikotik botere-harremanen gaia labur azaldu ondoren, komenigarria da ikustea gizarte-mugimenduek zer-nolako ekintzak gauzatzen dituzten zapalkuntzaren kontra egiteko eta beraien jomuga diren subjektu politikoak ahalduzko. Arestian aipatu dugun moduan, boterea dagoen lekuan erresistentzia dago, eta ezarrita dagoen gizarte-ordena zalantzan jarri duten eta jartzen duten mugimendu sozial eta politiko askoren oinarrian horixe dago, hain zuzen: nagusitasunezko harremanak zalantzan jartzen dituzte, bai eta haiek legitimatzen dituen sistema zapaltzailea ere. Besteak beste, aipatzekoa da feminismoa, mugimendu globala baita, eta botere eraldatzaile handia baitu; halaber, gizarte-mugimendu horrek ikasgai asko eskaintzen dizkigu botere-harremanak eta berdintasun-eza ulertzeko.

Planteamendu feministek, beren aniztasun eta guzti, sistema patriarkalaren funtzionamendua salatzen dute, hala eremu publikoan zein pribatuan, eta haren botereari desafio egiten diote. Analisi feministei esker, gizon eta emakumeen arteko berdintasun-ezaren oinarri ekonomiko eta materialak salatu ahal izan ditugu, bai eta haren oinarri kultural, ideologiko edo sexual eta afektiboak ere. Halaber, gizarteko erakundeek sistema sexista sostengatzerakoan betetzen duten papera ere agerian utzi ahal izan dugu. Salaketa horiek, pixkanaka, aldarrikapen sozial eta politiko bihurtu dira planeta osoan zehar: emakumeok etxe barruan eta handik kanpo egiten dugun lanaren balio sozial eta ekonomikoa aldarrikatuz hasita, indarkeriarik gabe bizitzeko eskubideraino; dibortziotik, gure gorputzen gaineko kontroleraino; gure nortasuna erabakitzeko autonomiatik, gure sexu- eta ugalketa-aukerak askatasunez baliatzeraino, batzuk aipatzearen. Azken batean, aldarrikapen horiek guztiek hiritartasunaren eta demokraziaren ideiak birplanteatzea eskatzen dute; eremu publikoan gauzatu izan diren baina eremu pribatura ere hedatzen diren bi ideia.

Feminismoak, mugimendu askatzaile gisa, emakumeok gizaki aske eta autonomo bihur gaitezen lortu nahi du, eta horrek talka egin ohi du, maiz, genero-rol tradizionalekin. Emakumeok, genero gisa, ez gaituzte hezi autonomo eta independente izateko, ez eta gure bizitzen gaineko kontrola izateko ere. Horixe azaltzen digu, besteak beste, Marcela Lagarde autoreak; haren iritziz, emakumeon boterea hainbat faktoretatik etor daiteke, besteak beste, nazionalitatetik, klase sozialetik, adinetik, mailatik, edota ahaidetasunezko harremanetatik, ezkontza-harremanetatik, eta harreman erotiko edo intelektualetatik, baina ez emakume izatetik. Izan ere, Amelia Valcárcelen arabera, emakumeok boterea baliatu behar dugunean, erabateko inbestidurarik gabe egin ohi dugu, eta hiru boto klasikoak beteta; pobrezia, kastitatea eta obediencia; eta, betiere, gure sexuaren bi bertute handiak gordeta; fideltasuna eta nork bere buruari uko egitea.

Feminismoa, sortu zenetik, botereari desafio egiten saiatu da, ez bakarrik hura sostengatzen duten oinarriak salatuta, baizik eta, batez ere, ekintza politikoaren eta bere antolakuntza-moduen bitartez. Feminismoak ahalduzaren estrategia bultzatzen du, emakumeek boterea balia dezatela, baina ez botere zapaltzaile eta baztertzalea, sexismoak baliatzen duena bezalakoa, baizik eta botere emantzipatzailea, emakumei gizaki aske eta autonomo gisa garatzen utziko diena, bakarka zein kolektiboki. Feminismoaren beste estrategia bat funtzionamendu horizontal eta erradiala da, antolakuntzari dagokionez. Feminismoak ez du izan ohiko egitura formalizaturik, eta hori, XX. mendeko hirurogeita hamarrek hamarkadan, haren garapena mugatuko zuen oztopo gisa ikusi zen. Gaur egun, ordea, abantaila gisa har daiteke. Are gehiago, nagusi den boterearen aurka agertzen diren taldeek modu horizontalean jarduten ikasi dute, bai eta sarean ere, loturak eta aliantzak ezarrita. Funtzionatzeko modu hori eraldatzailea da, desagerrarazi egiten baititu zentroa eta hierarkia, eta hala, kide guztiek parte-hartze maila antzekoa izan dezakete printzipioz, eta informazioa jasotzeko eta erabakiak hartzeko aukera antzekoa.

Nolanahi ere, botereari aurre egiten jarraitzea da erronka, bakarka zein kolektiboki. Zapaltzen gaituzten nagusitasunezko harremanak desagerrarazteko, erresistentzia-bideak ezarri behar ditugu, ahalduzaren prozesuak, eta gure gaitasunak baliatzeko modu berriak sortu, ahotsa eta agintea eman diezaieten halakorik izan ez dutenei. *Hariak*-en hirugarren liburukiak halakoxe ideia eta ekimenak ezagutarazi nahi ditu, subjektu eraldatzaileek emantzipatzeko dituzten interesak jasotzen dituzten bestelako ezagutza-moduekin konprometituta daudenak. Hezkuntza emantzipatzailearen oinarrietatik abiatuta pentsatu, sortu eta jarduteak ezagutzaren alorreko iturri eta erreferentzia desberdinetara garamatza, baina iturri horiek guztiek nabarmentzen dute beharrezkoa dela jakintzak trukatzeko, subjektu kritikoekin elkarrizketan jardutea eta jakintzaren ekoizpen patriarkalerako sistemekin haustea. Eskerrik asko estrategia eta praktika politiko horien guztien atzean zaudetenoi, zuen lana ezinbestekoa baita mundu bidezko eta zuzenago bat eraiki ahal izateko.

Sandra Dema Moreno
Oviedoko Unibertsitateko Soziologia Irakaslea



Rosario González Ariasek utzitako irudia.

Rosario González Arias. Abokatu feminista, Oviedoko Unibertsitatean ikasi eta doktoratu zen, "Generoa eta Aniztasuna" programan. Gaur egun irakasle elkartu gisa kolaboratzen du bertako soziologia departamentuan. Bere lan-ildoaren (arlotan juridikoan, irakaskuntzan eta ikerkuntzan) ardatza zuzenbidea eta generoa gurutzatzen diren lekuan dago, eta arreta berezia jartzen du politika publikoetan, giza eskubideetan eta interseksionalitatean; guztiak ere ikuspegi kritiko batetik aztertzen ditu. Hamar urtez irakasle aritu zen Mexikon, eta, han, benetan ikusi zuen zer garrantzi duten zapatismorearen planteamendu apurtzaileak. Sinetsita dago beste mundu bat posible dela, eta aktibismo sozialaren bidetik zalantzan jartzen ditu mugetako tirania, guztia harrapatzen duen eredu ekonomikoa eta heteropatriarkatua.

Mundua berriz pentsatzea hegaletatik

Munduaren eraikuntza androzentrikoa

Ezagutzaz hitz egiten dugunean, badira zenbait mugarri esanguratsu haren garapenean. Beharbada antzinako Grezian mitotik logosera egindako urratsa izan daiteke historia honetako lehen inflexio-puntua, pentsamendu mitikoa gaingaitzea dakarrelako, beste tipu logiko bati lekua uzteko, azalpenerako indar handiagokoa. Errenazimentua beste une garrantzitsu bat da, arrazoiak dogmaren lekua hartzen duenean

eta gero iraultza zientifikora iristen denean, zientziaren eta filosofiaren arteko behin betiko banaketa markatuz, bide paraleloetatik baldin bada ere. Zibilizazio-prozesurako funtsezkoak diren gertaera horiek faktore komun bat dute. Presokratikoek, sofistek, Aristotelesek zein Platonek aisialdi filosofikoa zuten, nahitaezkoa beren denbora galderak formulatzen eta balizko erantzunak bilatzen emateko. Kopernikok, Galileok, Descartsek zein Kantek baldintza egokiak zituzten mundua oinarri sendoago batetik abiatuta azaltzeko. Hori ezin zuen edonork egin, haiek gizonak ziren, mendebaldarrak, eta gainera

libreak, ez esklaboak. Munduari zalantzatik galdezen zioten, baina aukera hori izateak ematen duen ziurtasunetik idazten zituzten erantzunak. Gero, XIX. mendearen hasieran, gizarte zientziak sortu ziren, eta ezagutzaren agertokia konplexuago bihurtu zen; galderak metatu egin ziren, eta erantzunak gero eta iheskorragoak ziren. Baina patroia lehengo bera zen, mundua, fisikoa zein soziala, "gela bat norberarena" zutenek (Virginia Woolf, 1986) aztertzen zuten batik bat, askatasuna eta autonomia irudikatzen dituen espazio sinboliko hori, hau da, pentsamendua aske uzteko beharrezkoak diren baldintza ekonomiko eta sozialak.


XX. mendean, zientziaren krisia deitutakoak (Eduardo Nicol, 2001), ziurgabetasun printzipioaren zein erlatibitatearen teoriaren eskutik, aurreikusteko moduko ondorioak zituzten gezur batzuetatik abiatutako ezagutza-proiektu bat burutu baino ez zuen egin, bere muga batzuk agerian utzita. Gertatzen ari zena zen, Budaren kondairan bezala, mundua itsumandoka eta modu partzialean aztertzen ari zela, eta bakoitzak iluntasunean trakeski haztatzea egokitutako zatiaren arabera azaltzen zuela mundua. Giza ezagutzaren metafora honek laguntzen digu ulertzen begiratzea ez dela "gertaera neutroa, interpretazio-ekintza baizik" (Alejandro Vázquez, 2012:159), begirada munduarekiko konpromiso bat delako, eta jarrera bat harrarazten digulako. Eliot Eisnerrek ideia indartsu batekin laburbiltzen du, epistemikoki: "begia ez da garunaren zati bat soilik, tradizioaren zati bat da" (1988:62). Eta gertatzen da gure tradizio mendebaldarra irudikapenean oinarritu izan dela, ikerketa baino lehenagoko errealitate bat dagoela aldeztu izan duela -eta ez hark sortua-, baita ezagutzaren eta errealitatearen arteko erlazio isomorfikoa ere (Tomás Ibáñez, 2001). Horrek azaltzen du XX. mendearen lehen erdialdera arte zientziak tradizio analitiko positibista bat izatea, helburutzat ezagutza "unibertsal eta benetakoa" zuena, alderdi epistemikoan neutraltasunaren, objektibotasunaren eta arrazionaltasun zientifikoaren alde eginda eta, aldi berean, alderdi metodologikoan, monismo metodologikoa, dogma enpirista eta azalpen kausala aldeztuta (Maribel Ríos, 2010). Mota horretako proposamenek zientzia goratzea eta ezagutza ez zientifikoek egindako ekarpenak gutxiestea bultzatu zuen, zientifismo deritzonak egin ohi duenez.

Pentsamendu modernoaren oinardeko gisa, paradigma positibistak krisia izan zuen XX. mendetik aurrera, eta orduan berrikusi egin ziren proiektu ilustratuaren kontakizun handiak, mendebaldeko kulturaren mito

“ Subjektua ez da izaki unibertsal, fundazional, ahistoriko eta transkultural bat; produktu historiko aldakor bihurtzen da: historikoki kokatutako subjektibazio praktika jakin batzuen ondorio da ”

fundatzaile izandakoak. Metanarratiba horietako gehienek, zientziari dagokionak barne, subjektu unibertsal baten ideia zuten abiapuntu, trama historiko osoaren oinarri eta azalpen gisa (alderdi sozialean, politikoan, ekonomikoan, erlijiosoan, zientifikoan eta abar). Ikuspegi kritiko postpositibistek erakutsi zuten subjektu ezagutzaile horren ustezko unibertsaltasuna ez zela benetakoa, ezaugarri sexual jakin batzuei, klase jakin bati, jatorri jakin bati eta abarri erantzuten ziolako -gizonezko, jabe, zuri, heterosexual eta abar- eta ikusezin bihurtzen zituelako beste subjektu epistemiko askotariko batzuk, eredu nagusiak menderatuak. Orain, modernitatean baieztatzen zenaren kontra, subjektua ez da izaki unibertsal, fundazional, ahistoriko eta transkultural bat; produktu historiko aldakor bihurtzen da: historikoki kokatutako subjektibazio praktika jakin batzuen ondorio da. Modernitateko subjektuaren dekonstrukzio eta deszentralizazio lan horren ondorioz, beste subjektu ontologiko, epistemiko, politiko eta sozial batzuk, ordura arte baztertuak eta periferikoak, azaleratu ziren, hala nola emakumeak, herri indigenak eta abar, eta horrek, aldi berean, produkzio oparo bat ekarri zuen epistemologia feministen, hegoaldeko epistemologiaren eta abarren eskutik.

Postulatu tradizionallekiko haustura hori bultzatu zuen egileetako bat Michel Foucault izan zen, bere obraren zati handi batean ezagutzaren eta boterearen arteko lotura identifikatu zuelarik, batez ere *El orden del discurso* lanean, lehen aldiz 1970ean argitaratua, "gaur egun dena" (Ibáñez, 2005) sortzeko batu diren askotariko praktikak erakutsita, diskurtsiboak zein ez diskurtsiboak. Haren proposamenetatik abiatuta, argi dago diskurtso oro diskurtso hori baldintzatzen duen leku batean eraikitzen dela (posibilitate-baldintzak); horregatik, lehen itxia zuten espazio soziala bereganatzen duten subjektu lokutoreak azalratzeak aukerak ematen dizkie zentrotik deslokalizatutako kokapen periferikoetako narratiba berriei (Gregorio Iglesias eta Rosario González, 2015). Eta ihespuntu horretan agertzen dira "beste" epistemologia batzuk.



Harald Metzkes margolari alemanaren *Emakume jakintsuak* obra (2001).

Epistemologia feministak

Azterketa feministek oso paper garrantzitsua jokatu dute, generoko kategoria analitikoa txertatu baitute ezagutzaren ekoizpenean. Joan den mendean izandako pixkanakako garapenez geroztik, ikuspegi honek lagundu du ikusarazten edozein fenomenok inpaktu ezberdina duela emakumeentzat eta gizonezkoentzat, sozialki esleitutako rol ezberdinen arabera. Pertsonen generoaren arabera duten inplikazio ezberdina aintzat hartzeak aztertzeke gaiaren ezagutza osoagoa errazten du, eta horrek ezinbesteko tresna bihurtzen du. Gisa horretan, genero ikuspegia duten ikerketek lagundu zuten identifikatzen postulatatu zientifikoetan joera handia zegoela errealitatean prozesu sozialen ondorio zena "naturalizatzeke"; hala gertatu zen, adibidez, ezberdintasun sexualarekin, naturalizatutakoan biologiatik azaltzen baitzen (zerbait emana eta aldaezina balitz bezala), gaur dakigunez eraikuntza sozial (kontingente eta dinamiko) baten ondorio den arren, eta horrenbestez aldagarria. Esan dezakegu, beraz, genero ikuspegia txertatzeak bultzatu egin dituela emakumeen ezagutzak eta ezagutzeko moduak baztertu, haien mendekotasuna areagotu eta hierarkia sozialen betiketzea bultzatzen zuen positibismo zientifista androzentrikoari aurre egin dioten epistemologia feministak. Horien proposamenak urrundu egin dira arestian iruzkindu ditugun postulatatu tradizioetatik, haien parean ikuspegi alternatiboak planteatuta. Adibidez, positibismoak aldeztutako zientifismoari eta ezagutza zientifikoaren ustezko izaera unibertsalari dagokionez, feminismoak zalantzan

jarri zituen arrazoi zientifikoaren androzentrismoa eta ezberdintasunak suntsitzen zituen haren "egiaren erretorika"; horri esker, berreskuratu egin ziren emakumeen bizitzetako kontakizunak eta esperientziak, ordura arte isilaraziak eta baztertuak; haien ahotsak eta narrazioak diskurtso zientifikoan txertatu ziren, eta erraztu egin zen aniztasunerako iragatea feminismoetako funtsezko gai gisa.

Beste gai bat izan zen subjektuaren eta objektuaren arteko dikotomia erradikala objektibotasunaren berme gisa, objektibotasuntzat emanik ezagutzaren ekoizleak ekoiztutako ezagutzetan eraginik ez izatea, horren arabera zientzia "subjekturik gabeko prozesu" gisako zerbait zelarik (Ibáñez, 2001:254). Epistemologia feministetatik zalantzan jartzen da bereizketa hori, planteaturik bi entitate horiek ez direla bata bestearekiko independentziaz existitzen, ezinezkoa delako ezagutzen duenaren eta ezagutzen denaren arteko distantzia. Horrela, lehen errealitatea behatzen zuen subjektu ezagutzaile bat baino ez zen lekuan, gogoetazaletasuna azaleratzen da, eta behatutako hartan behatzen duen subjektua ere txertatzen du. Subjektibotasuna aldeztu da orduan, eta ezagutzaren izaera partziala, "hemendik eta orain egindako begirada" bat, Donna Harawayk objektibotasun erradikala edo haragituia deitzen duenaren adibide gisa, eta ikuspegi zatiketa infinitua, hau da, ikuspuntuaren erlatibismoa: "Ikuspegi partzialak baino ez du ahalbidetzen ikuspegi objektiboa" (1995:326). Egile horren arabera, epistemologian, ikuspegi bakar eta unibertsal baten irrikak ikuspegi posibleen konplexutasuna eta ugalketa du aurka. Gisa horretan, ezagutza kokatu eta partziala planteamendu totalizatzaile eta unibertsalista susmagarriak gainditzeko balio duen tresna bihurtzen da: kokatua, Donna Harawayk dioen moduan, ezinezkoa delako inondik ere ez begiratzea, begirada beti dagoelako denbora eta espazio kokapen batean; eta partziala, Teresa Carbóri jarraituz (2003), gure osotasun irrikak gorabehera, ezinezkoa delako denari begiratzea, begiradak beti duelako proiektzio-angelu bat, mundu sozialaren soslai edo hegal bat baino ikusteko aukera ematen ez duena, gure begiratoki kognitiboak osatuz.

Horrela ulertuta, objektibotasunak ez dakar subjektibotasunik eza, haren forma berezi bat baizik, ezinezkoa baita posizionatze mota oro saihestea. Horrek ez du esan nahi feminismoetatik objektibotasunari uko egiten zaiola, zilegizko eta beharrezko xedea izaten jarraitzen baitu edozein ikerketatan, baina beste eduki bat eman zaio, tradizio epistemikoan zuenaren oso bestelakoa, lau

ideia nagusitan laburbil daitekeena: ebidentziaren konpromisoa aurkako jarreran; ahalik eta erantzungarritasun handienaren bilaketa; egiatasuna printzipio etiko gisa; ikerketaren sakoneko balioak ikusaraztea eta esplizitu egitea.

Ikusten dugun bezala, lan kritiko feminista ez zen gauzatu jakintza hegemonikoen dekonstrukzioaren bidez soilik, eta berreraikuntzara ere jo zuen, formulazio teoriko eta metodologiko berrien bidez. Gertatzen da, gainera, feminismoa, kritika politikoko eta eraldaketa sozialeko proiektua denez, ez dela ahalegindu errealitatea deskribatzen soilik, baita eraldatzen ere, eta horregatik dute askotan proposamen feministek, aldi berean, tonu zientifikoa eta konpromiso etiko-politikokoa (Capitolina Díaz, 1996).

Ikuspegi interseksionala

Esperientzien aniztasunarekiko sentibera den esentzialismorik gabeko ikuspegi batekin koherente izateko, genero ikuspegia ikuspegi interseksiozkoarekin osatu behar da, ezagutza deskolonizatuta eta beste botere- eta mendekotasun-sistema batzuk identifikatuta, generokoarekin batera emakumeengan eragina izaten ari daitezkeenak. Interseksiozkotasunak zapalkuntza egituren sistema konplexu bat dagoela planteatzen du, eta egitura horiek anizkunak eta aldi berekoak direla, eta hori lotzen da zapalkuntza anizkunen, mendekotasunen bat-egitearen eta identitate anizkun mendekoen ideiarekin. Kontzeptu hauek erreferentzia egiten diete maila askotan mendeko identitateak dituzten eta, horregatik, mendeko identitate bakarra dutenak baino kalte eta diskriminazio modu gehiagori aurre egin behar dieten pertsonari. Feministen artean, gero eta ugariagoak dira gaitzesten dutenak emakumeen esperientziak unibokotzat eta ez askotarikotzat jotzea, adin, klase, etnia eta kultura ezberdintasunak aintzat hartu gabe, zeren: "emakumeen ahots baten eta ikuspegi baten bilaketa pentsamendu androzentrikoaren beste forma bat da, errealitateari buruz egia edo historia bakar bat esaten tematzen dena" (Norma Blázquez, 2010:32). Argudiatzen da, era berean, ez duela oinari errealik "arrazza", klasea eta generoa eraikuntza independente gisa teorizatzeak eta ikertzeak, eragin independenteak izango balituzte bezala emaitzaren aldagaietan; zatiketa sozial horiek ez dira existitzen, eta ez dute independenteki eragiten bizitza sozialean. Inor ez dago mugatua "arrazarengatik", generoarengatik edo klase sozioekonomikoarengatik

“ Interseksiozkotasunak zapalkuntza egituren sistema konplexu bat dagoela planteatzen du, eta egitura horiek anizkunak eta aldi berekoak direla ”

soilik, mundu guztia da, bere bizitzako une orotan, fenotipo batekoa, genero batekoa eta klase sozial batekoa, baita adin-talde batekoa ere, gorputz- edo funtzio-baldintza batzuk ditu, orientazio sexual jakin bat eta abar, eta ezaugarri horien interseksiotik osatzen da identitatea. Identitate-kategoria horien konbinazioak eragina du pertsonen esperientzietan eta norberaren buruaren zein besteen pertzepzioetan, eta pertsonak, metaforikoki esanda, zenbait diskriminazio mota gurutzatzen diren bidegurutze batean kokatzen ditu.

Patricia Muñozekin (2011) bat gatoz kategoria edo aldagai horiek guztiek izaera "anti-natural" bat dutelako ideian: politikek, eragileek eta botere-egiturek sortu eta iraunarazi ditzakete guztiak, eraikuntza kultural konplexuak baitira, historikoki ezarritako testuinguru sozial eta politiko bati dagozkionak. Horrela, errepara diezaiokegu esklabotzak utzitako ondare bortitzari, konkistaren eta kolonialismoaren arpilaketari, botere heteropatriarkalaren bilbadurari eta sistema kapitalistatik sortutako hierarkia ekonomikoari. Horren aurrean, diskriminazio interseksiozkoak aintzat hartzen du emakumea izatea gizarte patriarkaletan, immigrantea gizarte arrazistetan, txiroa aberastasuna metatzea lehenesten duen sistema ekonomiko batean, landa-eremuko emakumea hiriguneak lehenesten dituen gizarteetan, gaitasun ezberdinekoa edo dibertsitate funtzionalduna oso gizarte lehiakorretan, zaharra gaztetasuna goresten duen gizarteetan, emakume lesbiana edo transexuala gizarte guztiz heteronormatibo eta homofobikoetan eta abar (Rosario González, 2015).

Ezberdintasun sozialen edo ezberdintze-kategorien zerrenda hau ez da itxia edo exhaustiboa; zabaldu egiten da analisirako elementu berriekin, talde sozial batzuen eskubideen aitortza politikoaren aldeko borroka sozialek aurrera egin ahala, eta horregatik beti dute eraikuntzako elementuren bat. Prozesu ireki eta dinamiko gisa ulertuta, zabal daiteke, arestian aipatutakoetatik aparte, honako hauetara: GIB birusak eragindako emakumeak, prostituzio egoeran daudenak, preso daudenak, desplazatuak, errefuxiatu


“Gaur inoiz baino gehiago, eskola eta unibertsitatea indiziplinatu beharra dago, ezagutza politizatze eta mundu hobe baten zerbitzuan jartzeko”

politikoak, gatazka armatu baten testuinguruan bizi direnak eta abar.

Gisa horretan, ikuspegi intersektziozkoa emakumei eragiten dieten ezberdintasunaren agerpen zehatzak interpretatzeko eta lantzeko metodorik sofistikatuen delat ageri da, aldi berean esku-hartze sozialtzat ere har daitekeena, eta, zehatzago esateko, ezberdintasunen tratamendu integratu baten bidez emakumeek bizi dituzten errealitateak zehaztasun handiagoz diseinatzen eta, horrenbestez, emakumeek bizi dituzten egoeren heterogeneotasunari erantzuna emanaz, hala ezagutza nola ekintza politikoa hobetzen lagundu dezakeen estrategia politikotzat (Carmen Expósito, 2012).

Ezagutza transmititzeko beste modu bat posible da

Feminismoak eta beste mugimendu sozial batzuek ezagutza sozialetik eraldaketa sozialerako iragarte



Harvest Booksek editatutako Virginia Woolf eleberrigilearen *A Room of One's Own* liburuaren azala (1989).

beharrezkoan egindako ekarpenak funtsezkoak izan dira, batez ere hezkuntza beste eskubide funtsezko batzuk lortzea errazten duen giza eskubide "gaitzaile" gisa hartzen badugu. Proposamen horien aplikazio zehatzak potentzial emantzipatzaile handia du, eta erraztu egiten du ezagutza, botere eta kontrol gailu izateari utzita, eraldaketa sozialaren aldeko tresna bihurtzea, zeren, Paulo Freirek (2012) planteatzen zuen bezala, hezkuntzak ez du mundua aldatzen baina mundua aldatuko duten pertsonak aldatzen ditu. Erronka da, orain, balio horiek akademiara ere eramatea, merkatu librearen eta gehiegizko burokratizazioaren arauen mehatxupean hil-hurren dagoen pentsamendu kritikoaren eraikuntzarako leku pribilegiatu horretara. Garaiaren zeinuak irakurri behar ditugu, eta aurre egiten diogun testuinguru konplexua identifikatu, gaur egun heriotza dagoen lekuan bizitza ereiteko zeregin urgenteari ekiteko. Bizi dugun zibilizazio-krisiari alternatiba bat eraiki behar diogu, eta horregatik da hain garrantzitsua ezagutza ekintza politikoa parte izatea. Gaur inoiz baino gehiago, eskola eta unibertsitatea indiziplinatu beharra dago, ezagutza politizatze eta mundu hobe baten zerbitzuan jartzeko.

Erreferentzia bibliografikoak

Blázquez Graf, Norma (2010): "Epistemología feminista: temas centrales", in Blázquez, Norma; Fátima Flores; Maribel Ríos (koord.) *Investigación feminista. Epistemología, metodología y representaciones sociales*, México D.F, CEIICH-UNAM, 21-38. orr.

Carbó, Teresa (2003): "Investigador y objeto: una extraña/da intimidad". *Iztapalapa*, 53. zenbakia, 15-32. orr.

Díaz Martínez, Capitolina (1996): Investigación feminista y metodología. Algunos problemas de definición, in Radl Philipp, Rita (ed.) *Mujeres e institución universitaria en occidente*, Santiago de Compostela, Universidad de Santiago de Compostela, 309-325. orr.

Eichler, Margrit (1991): *Non-sexist research methods*. Londres, Routledge.

Eisner, Elliot (1998): *El ojo ilustrado. Indagación cualitativa y mejora de la práctica educativa*. Barcelona, Paidós.

Expósito Molina, Carmen (2012): "¿Qué es eso de la interseccionalidad? Aproximación al tratamiento

de la diversidad desde la perspectiva de género en España". *Investigaciones Feministas*, 3. liburukia, 203-222. orr.

Foucault, Michel ([1970] 2009): *El orden del discurso*. México D.F., Tusquets.

Freire, Paulo (2012): *Pedagogía del oprimido*. México D.F., Siglo XXI.

González Arias, Rosario (2015): "Diferentes diferencias: el transfeminismo como un reto frente a la interseccionalidad", in Lanuza, Fernando eta Raúl Velasco (ap.) *Queer & Cuir. Políticas de lo irreal*, Querétaro (México), Fontamara eta Universidad Autónoma de Querétaro, 111-125. orr.

Haraway, Donna (1995): *Ciencia, cyborgs y mujeres. La reinención de la naturaleza*. Madrid, Cátedra-Universidad de Valencia-Instituto de la Mujer.

Ibáñez, Tomás (2001): *Munición para disidentes. Realidad-Verdad-Política*. Barcelona, Gedisa.

Ibáñez, Tomás (2005): *Contra la dominación*. Barcelona, Gedisa.


Iglesias Sahagún, Gregorio eta González Arias, Rosario (2015): "Epistemologías desde los márgenes. Narrativas de la disidencia en las autonomías zapatas", in de Sousa Santos, Boaventura eta Teresa Cunha (ed.) *Direitos humanos e outras gramáticas da dignidade humana*, Coimbra (Portugal), Centro de Estudos Sociais de la Universidad de Coimbra, 449-462. orr.

Muñoz Cabrera, Patricia (2011): *Violencias interseccionales. Debates feministas y marcos teóricos en el tema de pobreza y violencia contra las mujeres en latinoamérica*. Londres, Central America Women's Network.

Nicol, Eduardo (2001): *Los principios de la ciencia*. México D.F., Fondo de Cultura Económica.

Nicolás Lazo, Gemma (2009): "Debates en epistemología feminista: del empiricismo y el standpoint a las críticas postmodernas sobre el sujeto y el punto de vista" in Nicolás, Gemma eta Encarna Bodelón (ap.) *Género y dominación. Críticas feministas del derecho y el poder*, Barcelona, Anthropos, 25-62. orr.

Ríos Everardo, Maribel (2010): "Metodología de las ciencias sociales y perspectiva de género" in Blázquez, Norma; Fátima Flores eta Maribel Ríos Maribel (koord.) *Investigación feminista. Epistemología, metodología y representaciones sociales*, México D.F., CEIICH-UNAM, 179-196. orr.



"Giza irudiaren proportzioa", c. 1492, Leonardo Da Vincik egina Daniel Cazések pentsatu eta Lorena Salcedok egindako faltsutzea CEIICH-UNAM zentroarentzat, 2000. urtean.

quez, Norma; Fátima Flores eta Maribel Ríos Maribel (koord.) *Investigación feminista. Epistemología, metodología y representaciones sociales*, México D.F., CEIICH-UNAM, 179-196. orr.

Vázquez Estrada, Alejandro (2012): "Mirar para qué" in Vázquez, Alejandro eta Adriana Terven (koord.): *Tácticas y estrategias para mirar en sociedades complejas*, Querétaro (México), Universidad Autónoma de Querétaro, 153-182. orr.

Woolf, Virginia (1986): *Una habitación propia*. Barcelona, Seix Barral.



Dolores Julianok utzitako irudia.



Jakituria-boterea erlazioa emantzipazio-gakoan pentsatzea

Dolores Juliano Corregido, antropologo soziala etaartzelonako Unibertsitateko irakasle titularra 1977tik 2001era arte, alegia, erretiroa hartu arte. Urte asko eman ditu irakasten eta hezkuntza, migrazio-mugimenduak, gutxiengo etnikoak eta gizarte-bazterketa ikertzen. Hori dela eta, zenbait ikerketa-taldetako kide izan da, eta irakasle gonbidatu gisa aritu da elkarlanean Estatu espainoleko eta Latinoamerikako zenbait unibertsitatetan. Argitalpen ezagunak eta artikulu ugari idatzi ditu, besteak beste, nabarmentzekoak dira: *Tomar la palabra. Mujeres, discursos y silencios* (2017); *Marita y las mujeres en la calle* (2004); *Excluidas y marginales. Una aproximación antropológica* (2004); *El espejo oscuro: la prostitución* (2001); *La causa saharai y las mujeres* (1998); y *Chiapas: una rebelión sin dogmas* (1995).

Begoña Zabala González, Nafarroako Emakume Internazionalistak talde feministaren militantea, Euskal Herriko mugimendu feminista autonomoaren kide da diktadura garaiaz goerotik, lehenik Bizkaian eta ondoren Nafarroan. Askotan aritu da elkarlanean Hegoarekin, eta baita beste GGKE batzuekin ere, beti ildo feministetatik. Ibilbide horretan, halaber, Dolores Julianorekin egin zuen topo EHUko Emakumearen Mintegiak eta Nafarroako Koordinakunde Feministak 1988an antolatu zituzten "Emakumea eta Garapena" jardunaldietan. Harrezkero, Doloresen jarraitzaile fidela da, zeinari zenbait elkarriketa egin baitizkio, eta hitzaldi eta esku-hartze askotan arreta handiz entzun baitio; horrez gain, haren argitalpen guztiak (edo ia guztiak) irakurri ditu. Dolores Juliano Corregidok hitzaurrea egin zion *Movimiento de Mujeres. Mujeres en Movimiento* bere liburuari.

Begoña. Zure azken liburuan¹ berriro aipatzen eta azpimarratzen duzu ideia bat, zeina aspalditik eza gutzen baitugu eta benetan liluratzen baikaitu. Hau da, talde marjinalak, mendeko taldeak, bereziki emakumeak, beti egon direla eusten, beti borrokatu direla nolabait bizirauteko. Alegia, beren praktikak izan dituztela diskurtso hegemonikoaren aurrean eta menderatzearen aurrean. Nahiz eta, argi eta garbi, kontrako jarrera hori ez den ez airtortzen ez kontuan hartzen, edo aitzitik, askotan manipulatu egiten den kontakizun ofizialean. Gustatuko litzaidake hitz egitea esperientzia kontra-hegemoniko horiei buruz eta horiek diskurtso nagusiekin duten erlazioari buruz.

Dolores. Lehenik eta behin, begien bistakoa den zerbait esango dut: kontrako jarrera, egia esan, diskurtso ihardetzailea baino zabalagoa da. Hau –esan genezake– praktika ihardetzailearen zati landua, zaindua, egituratua, fina eta prestigiotsua da. Baina praktika ihardetzailea maila askotan ematen da. Eta orain eransten dut: sektore batzuek diskurtso ihardetzaile esplizitua ez izateak ez du esan nahi aldarrikapenik ez dutenik, esan nahi du –soilik– indarren korrelazioak ez duela gehiagorako ematen.

Hortaz, diskurtsoak aukera-baldintzak ematen direnean sortzen diren ekintza politikoak dira, ez behar-baldintzak ematen direnean. Hau da, baliteke aldaketa behar izatea, baina diskurtso esplizituaren aukera-baldintzak ez ematea.

Begoña. Praktika horiek, zeinak existitzen baitira eta modu zabalean, politika eraldatzaileak ekar ditzakete? Jakin nahi duguna da ea politikak eta errealitatea eraldatuko dituzten alderdiak izatera irits daitezkeen –eta zein momentutan gertatzen den hori–. Noiz eta zein elementu ditugun praktika ihardetzaileak eta aldarrikatzaileak izatetik eraldaketa-estrategia bat izatera eta diskurtso ihardetzaile bat izatera igarotzeko pausoa emateko.

Dolores. Jakina, politika eraldatzaileak ekar ditzakete. Jar dezagun adibide gisa analisisian mugimendu feminista. Benetan sinesten al dugu feminismoa XIX. mendean hasi zela sufragistekin, edo XVIII. mendean Mary Wollstonecraftekin? Eta aurreko emakume anonimo guztiak bi mila urte egon al ziren ezer egin gabe eta txintik esan gabe? Ez dirudi oso arrazoizkoa.

Kontuan hartuta emakumeen diskriminazioa ia gizateria guztiaren historia bezain zaharra dela, taldeak maila desberdinetan diskriminatzaileak izan diren arren, badirudi emakumeak kexatzeko moduko arrazoi dezente izan dituztela. Ez al ziren kexatzen? Bai, kexatzen ziren. Gertatzen dena da praktika desberdinak garatzen zituztela, baina ezin zituzten diskurtso desberdinak planteatu.

Hori arakatzan saiatzen naiz ni aspaldidanik ipuin tradizionalen azterketan, esaterako. Ipuin tradizionalak badirudi ez dutela inolako diskurtso aldarrikatzailearik, eta horiek aztertzen baditugu osagaiak ikusten dira. Ikus dezagun, *Errauskin* desobedientziagatik saritzen da; ondo irteten zaizkio gauzak txarto portatzen denean. Ipuinetan emakume-protagonismo asko dago, eta dokumentuetan, aldiz, oso emakume-protagonismo gutxi.

Emakumeak beren eremuak sortzen joan ziren, eta, sortzen joan zirelako, une bat iritsi zen non momentu batean eremu horiek publiko egin baitziren. Baina publiko egin ziren jada bazeudelako, ez dira asmatzen aldarrikapenak une jakin batean. Horri buruzko ideia



Begoña Zabalak utzitako irudia.

1 Dolores Juliano (2017). *Tomar la palabra. Mujeres, discursos y silencios*. Bartzelona: Edicions Bellaterra.

nahiko orokortu bat dagoenean, orduan gauzatzen da publikoki. Hor has daiteke sortzen diskurtsoa eta estrategia beharrezko subjektu-osagaiak ematen badira.

Begoña. Hori al da zuk –unerren batean– esan duzun bezala azpikultura jakinak ekartzen ditue-na? Mundu azpiak edo azpimunduak izango lirake, edo hobeto mendekoak, ez baitute botererik.

Dolores. Botere gabezia adierazten dute hain zuzen ere, baina ez nagusitasunaren edo gutxiagotasunaren zentzuan. Boterea izateko modu bat da adierazpen-eskubidea izatea. Diskurtso legitimatuak izatea. Hortik dator diskurtsoen garrantzia.

Eskola begiratzen baduzu –Pierre Bourdieuk, besteak beste, jada aipatu zuen–, botere jakin bat ematen dizun kapital ekonomikoaz gain, gizarte kapitala diren sare sozialak daude, zeinak sozialki mailaz igotzeko aukera ematen baitizute, eta kapital kulturala dago. Kultura-baliabide legitimatu jakin batzuk badituzu, prestigioa ematen dizute, boterea ematen dizute. Beraz, gailurrera irits daiteke presidentea izanda edo Nobel saria izanda. Idazle batek prestigioa lor dezake, orduan, prestigio edo botere guztia ez dago soilik kapital ekonomikoarekin lotuta, baizik eta botere sozialaren zati garrantzitsu bat dago botere sinbolikoarekin, prestigioarekin lotuta dagoena.

Bada, eskola ofizialak diskurtso legitimatuak sortzarekin lotu dira. Ikuspuntu horretatik, uste dut eskola modernoari egiten zaizkion kritika batzuk esanez: “ez, eskola modernoa industria-iraultzaren alaba da, baina orain gaintitua dago eta doikuntza berriak egin behar dira”, ez direla egokiak. Nire buruari galdetzen diot zein puntutaraino eskola tradizionalak betetzen zituen helburu ekonomikoak industria-iraultzarako edo soilik helburu sinbolikoak. Teknikariak eta artisauak hezten ez zituen eskolaz ari naiz. Hauek enpresan egiten ziren lanerako prestakuntzakoak ziren. Enpresak intelektualak baino ez zituen prestatzen eta intelektualek ez zuten fabriketan lan egiten. Duela gutxi arte ez zuen prestatzen ezta teknikari edo espezialista oso konplexurik ere. Abokatuak, medikuak, ingeniariak, arkitektoak, irakasleak... prestatzen zituen. Prestatzen ari ginena kapital sinbolikoa zen. Ondoren industria hori erabil zezakeen edo ez, baina funtsean elkartzen ziren bi arlo ziren.

Orain *La nueva educación*² izeneko liburuan eskolarako enpresa-eredua jarraitu nahi denean, zeina emaitzak ematen dituena baita, eta lehiakorra izan dadila eta barne-sustapena berekin ekar dezala aldarrikatzen denean, non soldata-aldeak baitaude lan bat edo beste bat egiten dutenen artean jendea motibaturik sentitzeko, nik ez dakit hori ote den nahi dugun eskola. Hori al da nahi dugun eraginkortasuna? Edo eskolak gara al dezake bere eraginkortasuna berea den beste arlo batean, alegia, kapital sinbolikoaren arloan?

Beste funtzio bat betetzen du –eta hori da jesuitek beti jakin izan zutena–, hau da, jarrera sozialak legitimatzea: “hau ondo dago, hau gaziki dago”. Hau da, gizarte arautzea interpretazio intelektualaren bidez. Hortik bai daudela gizarte-aldaketa osagaiak, ezaupide baten eta ez beste baten transmisioan baino. Beste modu batera azaltzeko: heziketa formalaren bidez ikasten dugun guztiak zaharkituta bukatzen du munduak aurrera egiten duelako eta desdoitzeak jasaten dituelako. Azkenekoa ikasi arren, urte batzuen ondoren hori jada ez da azkenekoa. Alabaina, gure titulazioak ez dira iraungitzen. Lanean jarraitzeko dugun legitimitateak irauten du. Unibertsitateak legitimitatea ematen digu, eta legitimitate horrek duen botereari esker, entzunak izateko gaitasuna duten diskurtsoak egin ditzakegu. Liburuan diskurtsoez eta isilunez hitz egiten dudanean, diskurtso legitimoen eta legitimoak ez diren artean bereziten dut. Hain zuzen ere diskurtsoak legitimatzeko moduetako bat da hezkuntza sistema ofizialaren bidez.

Begoña. Hots, saldu ziguten hura, alegia, heziketa, irakaskuntza, batez ere ezaupideen transmisioa zela, badirudi ez zela guztiz egia. Nolanahi ere, ezagutza hori berehala geratzen da desfosatua. Diskurtso legitimatzailearekin eta legitimoarekin jarraituz, zer gertatzen da pentsamolde kritikoarekin eta ihardukitzailearekin? Ba al du lekurik hezkuntzaren mundu honetan pentsamolde eraldatzaileak?

Dolores. Behin diskurtso-sortzailea bihurtzen zarenean, botere bat lortzen duzu, eta politikoki egokien iruditzen zaizun moduan erabil dezakezu. Hori da esaten zena intelektualen funtzioaz mugimendu politikotetan.

2 César Bona-ren *La nueva educación* liburuari egiten dio erreferentzia, (2015). Madril: Plaza Janés.

“ Helburua da entzuten ez zaien sektoreen diskurtsoak eta aldarrikapenak legitimatzen laguntzea. Hau zeregin garrantzitsua da, iraultzailea ”

Esan nahi dut eskolak bai garatzen dituela gaitasunak, baina gaitasun horiek ez dira –halabeharrez– egokienak fabrika jakin batean edo enpresa jakin batean lanpostu jakin bat betetzeko. Hori lan-munduan bertan jasotako prestakuntzaren bidez lortzen da pixkanaka.

Begoña. Orduan, eskolatik, Akademiatik, jakintza homologatutik, egiten dena diskurtso legitimatzailea transmititzea bada, zer egiten dugu beren diskurtsoak edo beren praktikak diskurtso hegemonikoaren aldetik legitimatuta, ezta aitortuta ere, ez dituzten sektoreekin?

Dolores. Ez gara mugatzen diskurtso legitimatzailea transmititzera. Diskurtsoak, berriz, autonomoak dira. Marcos komandante-ordearen diskurtsoa, adibidez, Chiapasen. Jakina, berarekin zeuden indigenak baino prestakuntza akademiko hobea zuen, baina berak hauen zerbitzura jarri zuen bere prestakuntza akademikoa. Zer da jartzen ari dena? Eduki jakin batzuk baino, jartzen ari dena dira mundu akademikoan ikasi zituen hizkeraren, diskurtsoaren, komunikazio-estrategien erabileraren inguruan dituen ezaupideak.

Gure babesak behar duten sektoreen kasuan, saiatzen gara haien eskura jartzen entzunak izatea ahalbidetuko dieten komunikabide-moduak. Jar dezagun beste adibide bat. Sexu-langileekin lanean hasi ginenean, LICIT³ taldea sortzea pentsatu genuen denbora batean egoteko eta gero beraiek bakarrik jarrai zezaten. Alabaina, beraiei ez zitzaizkien komeni; esaten ziguten “zuekin gauden bitartean entzuten gaituzte, baina gu bakarrik baldin bagaude jada ez gaituzte entzuten”. Horrela, helburua da entzuten ez zaien sektoreen diskurtsoak eta aldarrikapenak legitimatzen laguntzea. Hau zeregin garrantzitsua da, iraultzailea. Askotan –beti uste dut– garrantzitsuagoa da mugimendu sozial hauen garapena babestea, elkar komunikatzeko

bideak jartzea eta adierazteko eremuak ematea, lan pertsonala edo, are gehiago, lan militantea baino.

Gogoan dut orain dela urte asko, garai sandinistan, ia guztiak indigenak ziren sortzain enpirikoekin, emaginekin egindako lana aztertzen ari zela. Lan bat egin zen haiekin urtebetez. Europako GGKE batetik erdi-urren zegoen emakume bat ospitalera eramateko edo beste aukera bat hartzeko arrisku-kasuak, urgentzia-sintomak irakasten aritu zitzaizkien... eta horri esker bizitza asko salbatzen ziren. Hori guztia ondo zegoen, baina nik galdetzen nienean: “eta zer jaso duzue zuek haien esperientziatik?” erantzuten zuten: “eta zer jaso behar genuen?” Zeregin instrumental bat lagundu nahi zen, eta hori ondo dago, baina ez zegoen inolako asmorik beren praktika tradizionalak jasotzeko edo legitimatzeko. Ikus dezagun; erdi-urren dauden emakumeak artatzen dituztenak beraiek izatea, erdi-urren dagoen emakumea belauniko egotea izara baten gainean lurtean bermatuta umea azkarrago eror dadin, erditzea errazteko botikak erabili beharrean masajeak eta infusioak ematea, geratzen diren ordu eta egun guztiak ondoan egotea... horretatik ezerk ere ez al du arreta minutu bat merezi?, horretatik ezerk ere ez al du merezi gomendio gisa kontuan hartzea?, ziur al gaude gure praktika, zeina osasunaren ikuspuntutik eraginkorragoa baita, beste praktika horiek ordezkatzeko ditzakeela soilik horregatik? Horrela ez gara saiatzen ari sortzain enpirikoak prozesuan sartzen, baizik eta gure buruetan bihurtzen edo ordezkatzeko. Ez zaigu interesatzen beraiek direna eta dakitena, erditzeak artatzen ehunka urte daramatzaten arren.

Begoña. Gainera, politika horiek kostu handia izan dute, eta ez da kontuan hartu haien esperientzia. Esaterako, ama-esnearekin eta titia ematearekin –zeinak orain hemen hain modan dauden–, kontua da pobretutako herrialdeetako emakumeen borroka historiko bat izan dela. Nestlé enpresa multinazionala sartu denean merkatu berriak irekitzeko herrialde horietan, ama-esnearen kalterako eta laguntza humanitarioaren eta GGKEen babesarekin, diskurtso legitimatu gutxien duten gizarte horietako emakumeak dira injerentzia salatzen dutenak. Gauza bera gertatzen da anti-sorgailu kimikoen sarrerarekin eta jaiotza-tasaren kontrolarekin.

Dolores. Beste taldeekiko pentsamendu koloniala edo neokoloniala deituko genioke horri. Nire ustez, eskolatik eta eskolatik kanpo aldatu behar duguna da pentsamendu mota hori. Gure eskoletatik

3 LICIT (Línia d'Investigació i Cooperació amb Immigrants i Treballadores Sexuales).



entzuten ikasiko duten, ikusten ikasiko duten, ikusi dutena eta entzun dutena, diskurtso moduan, antola dezaketen, hori ikusteko eta atzemateko gai diren pertsonak atera daitezela behar dugu. Kontua ez da ezaupide batzuk jasotzea eta ezaupide horiek transmititzea. Kontua da gai izatea ikasteko ez soilik eskolatik, baizik eta komunitatean gertatzen den horretatik. Kontua da errealitate sozialarekin zubiak eta komunikazioak sortzea. Uste dut azken ezaupide-multzoa –fisikan edo kimikan– eguneratzea baino garrantzitsuagoa, eskolan funtsean aldatu behar duguna dela gure ustez benetan baliozkoak diren ezaupideez dugun ideia, beste sektore batzuetatik datozen ezaupide garrantzitsu guztiak kontuan hartu ahal izateko. Uste dut eskola oraindik auditoretza gisa erabiltzen dugula; gure bibliografietan aipatutako diskurtsoetara lotzen gatzaie beti.

Begoña. Honetaz guztiaz, zer geratzen da orduan? Diskurtso hegemonikoa, Akademiaren instituzionala unibertsalizatu nahi izatea. Eta beste ikuspegi batean egongo lirateke talde marjinalen jakituriak eta praktikak. Ze zailtasun daude bi mundu hauen arteko artikulaziorako? Garrantzitsua izango litzateke pentsatzen hastea nola aurrera egin dezakegun bi mundu hauen arteko nahaspilan.

Dolores. Nik uste dut honen guztiaren atzean dogmatismoa dagoela. Badago ia batere kritikoa ez den onarpen bat, eta zera da: pentsatzen dugun hori ondo pentsatuta dagoela. Gizarte hierarkikoetan, desberdintasuna dagoen gizarteetan bizi gareneko eta gizarte hauek diskriminazioaren bidez autolegitimatzeko joera duteneko suposiziotik abiatzen bagara, erraz iritsi gaitzake ondorioztatzeraz guztiok, gizarte hauetan jaiotzeagatik eta bizitzeagatik, kutsatuta gaudela. Hau da, aurreiritziak ditugu. Beldurrak sortu ditugu sektore jakin batzuekiko, gaitzespenak sortu ditugu besteekiko. Aurreiritziak ditugu, zeren eta ezin izango ginatke iritsi iritsi garen lekura, hau da, ondo integratutako helduak izatera, ez bagenu partekatuko nolabait bizi garen mundu soziala. a, b, c... puntuan kritikoak izan gaitzkeen arren, alfabetoaren gainerako puntuetan ez gara kritikoak. Ez ginatke hitz egiteko, argitaratzeko moduan egongo, jada sistematik kanpo egongo ginatke, dena aldi berean zalantzan jarriko bagenu.

Orduan, gure ezaupideak –jaso ditugunak– zalantzan jartzen baditugu, pentsatzen badugu gure ezaupideak –hein handi batean– manipulaturik daudela, pentsatzen badugu harri askorekin egiten

dugula topo bidean, batzuetan konturatzen gara eta beste batzuetan ez, horrek tresnak ematen dizkigu beste sektore batzuegana hurbiltzeko umiltasun handiagorekin. Ikuspuntu horretatik, sektore horien diskurtsoak entzutea eta ezagutzea funtsezkoa da, ez erabat onartzeko –ez genuke inork egingo–, baizik eta gure oinarriak aztertzeko, kontuan hartzeko, aldatzeko. Sektore hauentzako irtenbideak imajinatzea baino zentzuzkoagoa izango litzateke galdetzea zeintzuk diren haien arazoak eta zein irteera proposatzen dituzten.

Begoña. Zuk sutzuki lan egin duzun eremu batean, emakume presoen eremuan, zein gai uste duzu aipatuko lituzketela, haiei galdetuz gero? Zer ikusirik izango al lukete haien kezkek eta irtenbideek feministen proposamenekin?

Dolores. Batez ere pentsatu behar da haiek hitz egiten dakitela. Zertaz dira kexu? Batez ere kartzelak familia-harremanetarako sortzen dituen arazoez. Zer gertatzen da ume txikiekin? Errealitatea oso gogorra da. Umeek hiru urte izan arte haiekin dituzte kartzelako eremu itxian, zeina ez baita ona umeentzat, baina non ama eta umeak harreman sinbiotiko batean baitaude, bata bestea baino ez du. Behin adin hori beteta, umea kartzelatik ateratzen da, eta bisita-sistemak funtzionatzen du soilik, bat astebetean edo hamabostean behin, beira batean zehar. Haurrek negar egiten dute amak besarkatu nahi dituztelako, eta amak atsekabeen urtzen dira. Beharrezkoa al da hori guztia? Ez al lituzkete izan beharko trantsizio-epeak, non umeak kanpoan egongo lirakeen eta amarekin lo egitera itzuliko lirakeen, edo egun batzuk irtengo lirakeen? Beharrezkoa al da banantze basati hori? Entzuten da zeintzuk diren emakume horiei sufrimendu bidegabe bat eragiten ari dieten arrazoiak, baina justiziaz dugun ideiarekin kontra doa erabat modu horretan konpondu nahi izatea.

Preso dauden emakume gehienak –ia %60 inguru– droga kopuru txikitan merkaturatzeagatik edo edukitzeagatik daude espetxeratuta, zeinak sozialki ez baitira hain zuzen delitu arriskutsuak. Alabaina, espetxeak bizitza hondatzen die. Ez dute eskatzen beren zigorrak (jada berez oso altuak dira) bertan behar utz ditzatela, baizik eta diskriminaziorik ez jasatea. Gizahilketaren zigorren antzeko zigorrak dira. Emakumeek egindako delituak askoz zigortuagoak daude, gizonak egiten dituzten delituak baino. Emakumezkoen lanak okerrago ordainduta dauden bezala, emakumezkoen delituak zigortuagoak daude.

“Ez da kasualitatea feminismo instituzionalak hainbeste zailtasun edukitzea mendeko sektoreekin harremanak izateko”

Legeak ezarritako araua onartua egonagatik ere, badi-rudi are gehiago gogortzea behar dugula. “Ez, ez dira gogortzen, berdin funtzionatzen dute gizonentzat zein emakumeentzat”, esaten dute. Alabaina, amatasuna ez da aitatasuna bezalakoa. Haur bat duen gizonetzko preso batentzat zentzuzko tratua izan daitekeena –non haurra astean behin ikus dezakeen eta amak eramaten duen–, erabat krudela izan daiteke emakume batentzat. Kasu askotan, delitu egiten hasi da bakarrik dagoelako eta arauen kontra doan ekin-tzaren bat egin gabe ezin dituelako bere seme-alabak mantendu. Baliabide urriak lortzeko egiten duten horrek seme-alaben tutoretza kentzen die edo elkarbitza zailtzen die. Tutoretza galtzen dute ehuneko altu batean, %8tik 12ra⁴ bitartean, baina ez haurrak zaintzea galarazten dieten delitu larriak egin dituztelako, baizik eta haiez arduratu daitekeen inor ez dagoenez, babesik ez dutela erabakitzen delako eta adopzioan edo harreran ematen dituztelako. Gizonetzko presoek, ordea, ez dute ia inoiz galtzen seme-alaben tutoretza.

Begoña. Gustatuko litzaidake feminismo instituzionalaren gaia sartzeari. Zuk oso hausnarketa txukuna eta kritikoa egiten duzu liburuan. Badago feminismo instituzional bat zeina dirudienez gero eta handiagoa den, etnozentrismoaren akats guztietan erortzen ari baita. Ez soilik sortzen ari den diskurtsoarengatik, zeina nahiko argia baita, baizik eta baita botere instituzionalean duen lekuarengatik, emakumean “babesteko” inplementatzen ari diren neurriengatik ere. Gehiegizko zigor-legedia arlo guztietarako, neurri positiboak batera kon-tuan hartu gabe.

Dolores. Liburuan aipatzen dut ez dela kasualitate feminismo instituzionalak hainbeste zailtasun edukitzea mendeko sektoreekin harremanak izateko. Ez da bakarrik emagalduekin, baita emakume presoekin, emakume immigranteekin... ere, erreze-lo handiarekin begiratzen dituzte. Jarrera hau ez

4 Datu hauek Dolores Julianoren liburu honetan kontsulta daitezke (2001): *Presunción de inocencia. Riesgo, delito y pecado en femenino*. Donostia: Hirugarren Prentsa.

“Emakumeak, etxekoandreak gehienak, susmagarriak ziren, kontserbadoreak ziren definizioz, ez zirelako langileak”

bada kasualitatezkoa, orduan egiturazkoa da. Non-dik dator gaitzespen hori? Feminismoa eskubide zibilien aldarrikapen batekin hasi zen. Sufragistetan pentsatzen ari naiz, zeinak bozkatzeko eskubidea eskatu zuten lehenak baitira. Sufragista puritanoak dira eskubide hori eskatu zutenak emakumeen nagusitasun moralaren inguruko planteamendu bategatik. *“Gu gara bertutetsuak garenak, gu gara gizartea funtzionamenduan mantentzen dugunak, gu gara seme-alabak hezten ditugunak... eta ez zaigu ematen gizon bekatarienari ere ematen zaion eskubide bat”*. Ez dituzte eskubide horiek planteatzen pertsonak garelako, baizik eta onak garelako, moralki nagusiak garelako.

Funtzionatu zuen. Zaila izan zen, baina lortu zuten. Zer gertatzen da planteamendu horretatik abiatuta moralki nagusitasun moralik ez duten emakumeekin? Emakume guztiak ez dute nagusitasun moralala. Nik ez dut esaten emagalduek emagalduta izateagatik nagusitasuna dutenik, edo delitu egiten duenak,



Tomar la palabra. Mujeres, discursos y silencios liburuaren azala.

edo ama ezkongabeek... Gainera, ez dute zertan eduki. Zer egiten dugu aldarrikatu ezin ditugun sektore horiekin? Ez diegu batere jaramonik egiten –emakume presoekin bezala– edo biktimizatzen ditugu. Planteatzen da *“egintza izugarriak egin dituztela, baina ez dituztela beren kabuz egin, behartu egin dituzte. Behartu dituen, delitu eginarazi dituen gizon bat egon ohi da atzetik”*. Hau da sistematikoki lan sexualarekin erabili duten estrategia. Esaten da *“ezein emakumek ez lukeela lan hori egingo bere borondatez, egiten badute behartuta daudelako dela”*. Ikus dezagun, egoera ekonomikoarengatik behartuta daudela, lan bat, hobeto bizitzeko aukera bat bilatzen ez dutela esan nahi badute, has gaitzke hitz egiten. Alabaina, baieztatzen da existitzen ez dena dela borondatezko prostituzioa, prostituzio guztia behartuta dela, eta ez arrazoi ekonomikoengatik, baizik eta indarkeriagatik. Nolabait Lidia Falcónek egin duen feminismoa da. Ikuspuntu anglosaxoia da; emakumeen onberatasunera jo eta babesteko aukera oro ezabatu.

Baina zer gertatzen da beste sustrai batzuk dituen feminismo europarrarekin? Feminista europarrok ez gatoz sufragistengandik, baizik eta ilustratuegandik. Feminismo europarra Europako mugimendu iraultzaileen alaba da. Flora Tristán, Mary Wollstonecraft... datozkit burura. Primeran ikusten zen feministak ez zetozeela erlijio-mundutik, baizik eta ezkerren mundutik. Hala ere ezkerak ere ez zuen inolako lekuri mendeko sektoreentzat. Marxismoan sinesten genuen garaiarekiko nostalgia sentitzen dudanean, Marxen *“Brumarioaren 18a”* irakurtzen dut, ba al dakizu zer esaten zuen mendeko sektoreei buruz? Itzela da. Mendeko sektoreetan lekua dute organistek, aitortu gabeko idazleek, kaleko musikariek, titiriteroek... Zergatik ezin zituen ikusi? Gizartearen gorozkiak ziren. Ez al ginen iraultza bat egiteko prest? Bere ideiarekin arabera, soldatapeko lanaren esperientziari esker, sektoreen interesak batu eta aldarrikapenak batera eskatu zitezkeen, hortik abiatuta lan iraultzailea egiteko. Ondorioz, soldata baten menpe ez zeudenak behe-burgesia ziren –hori esaten zitzaion garbigailu bat erosi nahi zuen edozein emakumeri–, edo proletariotza lumpena. Eta zer gertatzen zen emakumeekin horri dagokionez? Emakumeak, etxekoandreak gehienak, susmagarriak ziren, kontserbadoreak ziren definizioz langileak ez zirelako. Emakume langileak soilik izan zitezkeen iraultzaileak. Ez bakarrik gizon iraultzaileak, emakume iraultzaileak berak (anarkistak salbu) ez zieten emakumeari botoa eman nahi botoa eskuinari eman-

go ote zioten beldur. Hori guztia ez zetorrelako bat subjektu iraultzaileaz zuten kontzepzioarekin.

Bi taldeetako ezeinek ez zien babesik eman; ez iraultzaren emakume puritanoen aldetik, ez gizon puritanoen aldetik, ez zuten inolako adorerik lortu. Hortik aurrera, emakumeen, gutxiengo etnikoen, eta oro har emakume hausleen eskubideak aitortzeko bidea zaila izan da. Kasu askotan uste zen lesbianek ez zutela jakitera eman behar beren orientazio sexuala emakume-mugimenduaren irudia kaltetuko zuelako. Asko kostatu zitzaizen uste horrekin apurtzea. Gaur egun transexualak oraindik ez dira benetako emakumeak. Emakumeak izateko egiten duten lan ikaragarriarekin! Gu emakumeak gara inolako meriturik gabe, eta emakume izatera iristeko ebakuntzak egiten dituzten, hormonak jartzen dituzten, janzten diren, beren familiarekin harremanak eteten dituzten hauek hona etortzen direnean eta esaten dutenean "orain emakumeak gara", esaten diete "ez, ez jaiotzatik, ez sehaskatik". Egia esanda, krudela iruditzen zait.

Mugimendu feministak, bere adar finkatuenean, horrekin zailtasunak edukitzeak ez gaitu harritu behar, batez ere jarrera hori, emagalduekiko duen jarrera biktimista, sustrai feministengandik datorkielako eta aurreiritzi sozialekin bat egiten duelako. Inor molestatu gabe feminista izateko modu bat da, inor baliozkotzat jotzen den edozein solaskide dela ulertuta.





SORKIN

Nortzuk gara

- Sorkin, Alboratorio de Saberes / Jakintzen Iraultegia

Hemen aurkituko gaituzue • www.sorkinsaberes.org

Sorkin. Ezagutzak itzulikatzen, bizitzak erdigunean jartzeko

Gure izenaren –SORKIN– jatorria *Sorgin* eta *Ekin* hitzen arteko hitz-jokoa da. Izen horren bitartez, emakume jakintsu guztien zeregina aitortu nahi dugu; izan ere, pertsonen zaintzaren eta naturaren inguruan zituzten ezagutza eta jardunbideengatik eta horrek euren komunitatean ematen zien botereagatik laidotu zituzten. Gizarteak legitimatutako ezagutzaren oinarri diren printzipioak *itzulikatu* nahi ditugu. Modu horretan, kultur aldaketa eragitea espero dugu, eta ekintzaren bidea hartuta egingo dugu, *bizitza erdigunean jartzen duten ezagutzak* izendatu dugun horri beste esanahi bat emango dioten hezkuntza-proposamenak sortuta.

Gure abiapuntua hauxe da: ezagutzak, gaur egun, pribilegioak iraunarazten eta ongizate komunaren kontrako ekintzak legitimatzen dituzten botere-harremanak bultzatzen ditu; horren barruan, zientzia da bereziki gizartean gehien balioetsitako guneetako bat. Imajinario kolektiboak ontzat ematen du zientzia modernoa objektiboa, neutrala eta unibertsala dela eta, sarritan, meritu indibidual bati erantzuten diola. Baina hori oso urrun dago errealitatetik. Asmakizun kulturala izanik, egungo gizartea (baita ilustrazioaren garaia ere, non zientzia modernoaren kontzeptua sortu baitzen) zuzentzen duten gidalero heteropatriarkal eta kapitalistei erantzuten die. Era berean, kontzeptua sortu zuen talde txikiari lotutako ezaugarriei erantzuten die: gizon zuriak, mendebaldekoak, heterosexuak, klase ertain-altukoak, beste talde sozialen gaineko nagusitasuna bermatzen duten botere-estrategiak antolatzen dituztenak (modu kontzientean zein ez). Era horretan, hierarkiak mantentzen dituzte, eta horiek islatu egiten dira naturarekiko, emakumeekiko edo beste kolektibo zapalduetako gaur egun dagoen

iritzian; izan ere, baliabideak eskuratzeko objektu soiltzat hartzen dira, behe-mailakotzat, eta, hortaz, zilegia da horiek mendean hartzea.

Gehien erabiltzen den eta dagoeneko naturalizatu den estrategietako bat talde horren interesei erantzuten ez dien ezagutza ororen ikusezintasuna edo gutxiespena da. Horrela, ezagutzen arteko dikotomia sortzen da, eta horietako batzuk zientifikotzat edo ikertzeko modukotzat hartzen badira ere, beste batzuk ez, eta horren menpeko bigarren mailan baztertuta geratzen dira. Sorkinek uste du ikusezintasun hori batez ere bi alderditan gertatu dela. Alde batetik, ohiko zientzian parte hartzen eta parte hartu izan duten kolektibo zapalduen ekarpenei balio txikia ematen zaie; bestetik, era horretako kolektiboen ezagutzak baztertu egiten dira. Horrek, aldi berean, hiru ondorio dakartza: gaur egungo diskriminazioen sustraietan sakontzen da; kolektibo horiek ekoizpen zientifiko eta kulturean egin ditzaketan ekarpen baliotsuak galtzen dira, eta, azkenik, kapitala/bizitza gatazka agerikoa den sistema indartzen da.

Hala ere, badaude beste begirada batzuk, gauzak egiteko beste modu bat, eta inspirazio-iturri gisa balio digute. Esaterako, hainbat korrante feministaren baitan sortu den bizitzarekiko iraunkortasunaren nozioa; munduan berriro kokatzea proposatzen du, pertsona guztiak inter eta ekomendekoak garelako ideiatik abiatuta, eta giza ongizatearen ideia gizartea zeregin, espazio eta zaintza-denboretan berrantolatzean oinarritzen delako. Horri epistemologiaren inguruko planteamendu feministak gehitu behar zaizkio; izan ere, subjektibotasuna, sentimenduak eta iritziak balioan jartzen ditu, eta ezagutza kokatua aldarrikatzen dute. Horrek no-



Sorkin, Alboratorio de Saberes / Jakintzen Iraultegiak utzitako irudia.

rabidea aitortzea dakar, partzialtasuna onartu eta errealtatearen ikuspegi bakarretatik ihes egitea. Planteamendu horiek, diziplina arteko, eraikuntza kolektiboko eta ezagutza irekiko ikuspegi batekin batera, oinarri filosofikoaren barruan daude gure lana sortu genuenetik.

Gai horiek guztiek bultzatu gintuzten abentura hau abiaraztera, eta forma eman diegu, kontzeptu bat garatu arte; gure ustez, ideia honek arazoak eta proposamenak uztartzen ditu, gaia osotasunean jorratzen du, eta ahaldun didaktiko eta eraldatzaile handia du; bizitza erdigunean jartzen duten ezagutzak. Kontzeptu bizia da, eta apurka-apurka itxura hartzen doa; ezagutzak, jardunbideak eta egiteko moduak, hainbat mendetakoak zein gaur egun oraindik eraikitze prozesuan daudenak. Baina ezaugarri nagusia dute merkatuko logikatik at funtzionatzen dutela eta espezie gisa –bizitzaren euskarria– erreproduzitzea ahalbidetzen dutela; hala ere, legitimatutako ezagutzatik atera dira, eta, sarritan, ez dira balioetsi ez oinarri zientifikoak ez kulturalak, ezta gizarteari egindako ekarpenak ere. Ezagutza horiek bazterretatik garatu eta transmititzen dira: emakumeak –asko eta askotarikoak–, komunitate indigenak eta nekazariak edo bestelako kolektibo zapalduak, euren bizitza-esperientziatik abiatuta.

Hezkuntzako proposamenen bidez berriro esangura ematea da gure erronka nagusia; izan ere, gure ustez, hezkuntza oinarritzko elementua da gizarte eraldaketarako. Ezagutzaren nozioa bera auzitan jarrita, bereziki zientziari dagokionez, eta horren inguruan sortzen diren botere-harremanak berrikusita, berdintasunean, justizian eta elkartasunean

oinarritutako kultura –zientifiko– baterantz aurrera egin ahal izateko. Ezagutza zelan eratzen den, nork egiten duen, zein baldintzatan eta, batez ere, zer dagoen horretatik kanpo dira aztertu beharreko gaiak. Gaur egun, arreta bi ildotan jarrita egiten dugu: zientziako eta feminismoa ikerketak eta nekazaritza ezagutzak.

Pertsonen hezkuntza osoa sustatzea, kontzientzia kritikoa garatu dezaten; berdintasuna sustatzeko ezinbesteko neurriak hartzea, eta bizipenen, emozioen eta gozamenaren bitartez ezagutza bultzatzea; horiexek dira gure proposamen pedagogikoaren oinarriak. Modu honetan, talde menderatzaileen pribilegioen eta botere-estrategien inguruan teorizatzen dugu. Aldi berean, ezagutza sortzeko prozesuan ikusezinak diren ezagutza eta pertsonen beste esangura bat ematen diegu, ezagutzen sorreran autoritate-iturri gisa jokatzeko bizi-esperientziari merezi duen balioa emanez.

Irutearen tortzioaz edo marmelada egitean sortzen den koloideaz aritzeak zientziarako eta ezagutzarako ibilbidean aurrera egitea dakar, bizitza erdigunean kokatuta, eustea posible izan dadin. Ezagutza horiek hezkuntzan txertatzea ongizate komunarentzat ezinbestekoak diren lan eta jardunbide horiei beste esangura bat ematea da, baita horien atzean dauden kolektiboek ere.

Vanesa Calero Blanco eta Teresa Sancho Ortega.
Sorkin, Alboratorio de Saberes /
Jakintzen Iraultegia



Nortzuk gara • Nocións Comunes
 Hemen aurkituko gaituzue • www.traficantes.net/nociones-comunes/nccc

Nozio komunak: autotrebakuntzako proiektu bat, gizarte mugimenduetatik abiatuta eta gizarte mugimenduentzat

Nozio Komunak (NK) prestakuntza politikoko proiektua da Traficantes de Sueños (TdS) liburu-denda asoziatibo, banatzaile, editorial eta diseinutailerraren bost zutabeetako bat. TdS Madrilgo Lavapiés auzoan kokatuta dago. 2012az geroztik, *Komunen Fundazioaren* (KF) sareak, zeinak gaur egun sei nodo baititu¹, *Nozio Komunak* izena jarri zion autotrebakuntzaren ardatzari. Artikulu honetan zehazki azalduko dugu nola garatu den proiektu hori Madrilgo gunean.

Autonomiaren alorrean hogeitertietik gorako ibilbide kolektibo luzea egin ondoren, 2009an mugimendu sozialetatik abiatuta eta mugimendu sozialentzako jakintza sortzeko espazio berriak sortzeko beharretik etorri zen trebakuntza politikorako proiektu egitura-tuago bat sortzea. Proiektuari zentzu politikoa ematen dioten lau ildo nabarmendu ditzakegu gutxienez. Batetik, NK sortu zen *ezagutza akademiko-zentratuari egindako kritikatik*; izan ere, gero eta gehiago dago produktibitatearen logikak eta formalki aitortutako zirkuituen endogamiak zeharkatuta, eta, elkarrekiko nabarmen makurtuta egoteaz gainera, eraldaketa sozialerako gaitasunari dagokionez, dekadentzia etengabea daude. Bestalde, *ezagutza subalternoei balioa emateaz* dihardugu, uste baitugu beharra dagoela aitortzeko gatazketatik sortu den jakintza kolektiboa –horren konplexutasuna eta forma aintzat hartuta–, gatazkan dauden subjektu politiko autoantolakuntza-prozesuek elikatuta. Hirugarrenik, aldarrikatzen dugu ezagutza sortzearen izaera kolektiboa, eta saiatzen gara ihes egiten Autore Handien fetitxismotik zein prestakuntza klasiko

alderdikoitik, masak kontzientziatzeko abangoardian oinarriturik baitago. Azkenik, gure ikastaroen kontzeptu abstraktuak ikasteko ez ezik, bokazio agerikoa dute *eraldaketa sozialerako balio* izateko; horrenbestez, kritikarako tresnak aldi berean teorikoak eta praktikoak dira, alegia, hausnartzeko eta ekiteko, eta, beraz, mundua interpretatzea eta eraldatzea ezinbestean une berean egin behar direla dioten tradizioari jarraitzen diogu.

Edukiari dagokionez, hasierako urteetatik lantzen diren gai nagusiak, batez ere, bost dira: feminismoak, postkolonialismoa, teknopolitika, krisi globala eta metropolia. Beti metropoli, Estatu edo Europa mailako borrokekin elkarrizketan eta horiekin lotuta, 2009 eta 2011. urteen artean, bereziki garrantzitsuak izan ziren eskubide sozialen bulegoen mugimendua elikatu zituzten ikastaroak, beste feminismo batzuk edota gorantz doazen sare sozialen erabilera politikoak ikusarazteko egindako saioak. 2011 eta 2013. urteen artean, gogoz landu ziren plazetako mugimenduetan sortutako ildoak; esate baterako, Espainiako higiezin burbuilaren porrota, 78ko Erregimenaren eta Europar Batasunaren krisi politikoa eta M15aren demokrazia erradikalaren gaineko hausnarketa indartzea orokorrean. 2014az geroztik, azpimarra daiteke *Zerua hartzen* ikastaro-trilogia, balio izan zuena munizipalismoari² buruzko eztabaida pizteko. Bukatzeko, azpimarratzekoa da azken urteetan gai feministek izan duten indarra: zainketak, ekonomia feminista, maitasuna, hazkuntza, maskulinitateak


1 TdS KF sarean dago, beste hauekin batera: NK Bartzelona, NK Zaragoza, Málaga Unibertsitate Libre Esperimentala, Terrasako Synusia liburu-denda eta Iruñeko Katakarak liburu-denda.

2 Lehen adierazi duguna erakusteko, ezagutza abstraktu gisa ulertutako prestakuntza baino gehiago, ikastaroak leku garrantzitsuak izan ziren eztabaidarako. Gero hortik sortu ziren lehenengo aliantzak eta adostasunak, eta, Madrilgo kasuan, hipotesi munizipalista gauzatzeko aukera eman zuen.

edota indarkeria matxistak. Jorratu diren beste gai batzuk hauek dira: psikoanalisi heterodoxoa, azpi-kultura musikalak edo *komunei* buruzko eztabaidak. Gainera, Demokraziaren eta Munizipalismoaren aldeko Institutuarekin –Behatoki Metropolitarraren oinordekoa da– elkarlanean, 2016az geroztik tokiko boterearen sareen zein Madrilgo Udalaren politika publikoen analisi kritikoak egin dira, eta krisiaren ekonomia politikoa edo geografia eta historia kritikoak ere landu dira.

Ikastaroen antolakuntzari dagokionez, oinarrizko formatua hau izan da: sei eta hamabi saio artean, astean behingo maiztasunarekin. Bestalde, asistentzia aldakorra izan da, hogeita hamar eta laurogeita hamar lagun artean. Oro har, saioetan aurkezpen bat egon da, eta, gero, eztabaida dinamizatu bat, irakurgaien laguntzaz. Aurkezpenak egiteko lehenetsua eman zaie gizarte mugimenduetako borrokarekin zuzenean lotuta daudenei. Ikastaro berri bakoitza prestatzeko –ia hirurogei egin dira–, aurrez ikerketa-lan bat egiten da mugimendu sozialen agendan suspertzen ari diren gaiei buruz, eta aztertu egiten da zein pertinentzia politikoa duten une horretako egoeran. Hona hemen parte-hartzaileek NK-ko ikastaroetan nabarmentzen dituzten indarguneetako batzuk: gai ezezagunetan sartzeko edo horietan sakontzeko aukera ematea; lehen mailako eztabaida berrietara modu sintetikoan sartzeko aukera ematea, izan ere, bestela horietan sartzeko ezinezkoa litzateke; saio desberdinetako ikuspegiak edo *erregistroen* aniztasuna, eta jorratutako gaietan sartuta dauden hiriko beste kolektibo batzuekin harremanetan jartzeko aukera.

Banaketari dagokionez, NKren apustua da ikastaroetako edukia jendeari itzultzea etengabe. Sarbide libre eta doakoak hedatzeko ematen duen aukerari jarraituta, saio guztien audioak online jartzen dira TdSren *Soundcloud* kanalaren bitartez (eta berriki *Ivoox* ere bai). Muntatua du TdSren ekoizpen editorialaren eta ikastaroen edukien arteko elkarrekinak. Hala, argitaratutako liburuak ahalik eta gehien zuzentzen saiatzen gara, sarri eztabaidarako material gisa erabiliz. Esate baterako, horrela egin zen *Subversión feminista de la economía* (Ekonomiaren subertsio feminista) edo *Fin de Ciclo* (Ziklo amaiera) liburuekin. Koordinazio hori zein biderkatzeko gaitasuna oso positibotzat jotzen ditugu, eta audioak hedapen handia ahalbidetu du. Adibide bat jartzearren, *Zer dago maitasunaren atzean?* ikastaroa izan da beharbada, asistentziari zein online entzunaldien kopuruari (2.000 eta 17.000 entzunaldi artean, saioaren arabera) dagokionez, gure aurreikuspenak gehien gainditu dituen.



Nozio Komunak Madril elkarteak utzitako irudia

Bukatzeke, etorkizunerako ditugun erronka batzuk nabarmenduko ditugu. Batetik, gure asmoa da lan ildo nagusien prestakuntzarako ibilbide sistematikoagoak finkatzea, bai eta metodologia pedagogikoak profilen arabera desberdintzea eta konplexuagoak egitea ere. Era berean, tailer erako saio batzuk egiten hasi gara, non era gorpuztuago batean eta formatu malguago batekin lan egiten baita, TdSko aretotik kanpo. Halaber, ikastaroetan parte hartzen dutenen artean interakzio handiagoa sortu nahi dugu, horrela, ekimen kolektiboak sor daitezten. Bestalde, 2016an hasi genuen Estatu mailan NK Ikasgela birtuala; aldian-aldian online ikastaroak egiten ditugu, eta erabiltzen dugun prestakuntzarako metodologiaren helburua da (bideoetan, irakurgaietan, foroetan, tutoretzapean eta lanetan oinarrituta) prestakuntza politikorako sarbidea erraztea Estatuko edozein hiritako pertsonen zein ordu-tegiak direla-eta edo bertaratzeko arazoak direla-eta joan ezin dutenei. Horregatik guztiagatik, erronka horiek betetzeko epe ertain eta luzean proiektua handitu behar da, horretarako beharrezkoa den azpiegitura materialean inbertituz; izan ere, horrela eskuratuko dira gure esku-hartze politikorako gaitasuna handituko duten baliabideak. Hala, esate baterako, amets egiten dugu gizarte mugimenduen Herri Unibertsitate moduko bat sortzearekin, adibidez, Brasilgo Florestan Fernandes eskolaren estiloko bat³.

Nozio Komunak Madril

3 <<https://viacampesina.org/es/brasil-la-escuela-nacional-florestan-fernandes-cumple-12-anos>>.



ULEX. Autoprestakuntzako esperientzia bat Malagan

ULEX, Unibertsitate Libre Esperimental, prestakuntza-proiektu autogestionatua da, 2007an sortutakoa La Casa Invisibleko gune nagusienetako baten gisa. La Casa Invisible Málaga hirian kokatuta dagoen zentro sozial eta kulturala da. Aldi berean, ULEX, Estatu espainiarreko antzeko beste proiektu batzuekin batera, lanean ari da autoprestakuntzarako guneen sare bat sortzen, Komunen Fundazioa (KF) eta horren baitan sorturiko Ezagutza Komunak (EK) prestakuntzarako apustuaren barnean. Hain zuzen, horri buruz hitz egiten da aldizkari honetako beste artikulu batean.

Hezkuntza arautua alde batera utzirik, unibertsitate publikoan lan egiten duten eta ikuspegi kritiko eta alternatiboak dituzten zenbait pertsonarekin elkarlanean sarri lan egiten badugu ere, ULEX, sortu zenetik, autoprestakuntzarako espazio kolektiboa da, eta jakintza batzuk, merkatuaren logikei lotu gabe daudenak, zein inguratzen gaituen eremuan politikoki eragiteko ezagutza emantzipatzaileak sortzen eta partekatzen ditu. Espazio-esperimentu honetatik urteetan igaro diren pertsonen helburu nagusia hau izan da: gudan eragiten duten arazoei buruz hausnartu ahal izatea, gero horiek gainditzeko. Era horretan, gure ibilbidean zehar –batzuetan irregularra izan da– landu ditugun edukiak zortzi puntu hauetan bildu daitezke: hirirako eskubidea, ekonomia soziala, feminismoak, teknopolitika, guztion ondasunak, kultura askea, pentsamendu kritikoa eta mugimendu sozialak. Formatuari dagokionez, funtsean hiru izan dira: ikastaroak, hitzaldi-tailerrak eta irakurketa/ikasketa taldeak. Azken horiek barnerako dimentsioa izan dute gehiago, eta, horietan, lehentasuna izan dute zentro sozialeko kideek, nahiz eta inoiz ez den egon asmorik itxiak edo eskusiboak izateko. ULEXek,

ezagutza-armen laborategi diziplinartekoa denez gero, hezitzaileak eta ikasle militanteak ditu bere barnean, baita gutxiengo sortzaileak eta ikertzaile kritikoak ere. Azken horiek ez daukate esperantzarik eraldaketa sozialerako balio duten ezagutzak sortu eta hedatzeko erakundetzat duten unibertsitate-enpresan.

Azken hamar urteetan egin duen lanaren emaitza gisa, Málaga eta ibilbide akademikoetatik kanpora egin diren berrehun ekitaldiren baino gehiagoren atzean egon da ULEX. Esate baterako, pertsona ospetsu hauek egon dira: Richard Stallman, Software Librearen aldeko mugimenduaren sortzailea, edota Franco Berardi *Bifo*, autonomismo italiarraren erreferenteetako bat. ULEXetik igaro dira, era berean, historialariak, adibidez, Peter Linebaugh; pentsalari feministak, esate baterako, Silvia Federici; eta Michael Hardt, Brian Holmes eta Amador Fernández-Savaterren mailako ikertzaile sozialak. Era berean, topaketak eta mahai-inguruak egin dira oso gai desberdinei buruz, gaur egun oso garrantzitsuak diren gaiak jorratuz. Besteak beste, kultur kudeaketa (Manuel Borja-Villel, Santiago Eraso, Rogelio López Cuenca, Santiago López Petit), mugimendu sozialek eraldaketa sozialeko prozesuetan duten zeregina (Maurizio Lazzarato, Gerald Raunig, Monserrat Galcerán eta Isabell Lorey), mundu garaikidean komunikazioak duen zentraltasuna (José Pérez de Lama, Florencio Cabello, César Rendueles) edota denon erakundeak (Andrea Fumagalli, Franco Ingrassia, Antonio Lafuente).

Ezin da ukatu horrelako proiektu batek oztopo asko gainditu behar dituela; guztiak ere ULEXen



Curro Machucak utzitako irudia.

inguruko prekaritate sistemikoaren testuingurua-ekin lotutakoak. Hasieratik egin behar izan diogu aurre, besteak beste, prestakuntza jardueri eta kapital sozial militantearen emari konstanteari eusteko bideragarritasun ekonomikoari. Málaga da Estatuan langabezia tasarik handiena duen hirietako bat, eta ekonomia postfordistaren logikak oso iraunkorrak dira hemen, gaur egun hirian gertatzen ari diren turistizazio, gentrifikazio eta gizartearen eta lanaren prekarizazio prozesuek erakusten duten moduan. Gure helburua ez da errentak sortzea; aitzitik, jakintza eta aberastasun soziala sortzea da xedea, erabilera publikorako parametroak erabilita eta hura hedatzeko eta hobetzeko aukera emango digun itzulerarekin. Dena dela, bistakoa da ULEX osatzen eta bertan parte hartzen duten kideen prekaritate ekonomikoak ezinezko egiten duela proiektua gehiago zabaltea. Jarduerak komunitate militante oso baten lan kooperatibo eta autogestio-natuari esker soilik antolatzen dira, eta komunitate horretako kideak ere duintasunez bizitzeko aukera emango dien errenta propio baten premiaz bizi dira. Horrek eragiten du ekitaldien zein ikaskuntzaren

denbora ez izatea hain trinkoa. Etorkizunera begira dugun erronketako bat, beraz, hau da: ULEXek egiten dituen jardueren bitartez finantziario fluxu bat izatea, hala, kideren bat liberatzeko, koordinazio eta antolakuntza lanak egin ditzan, EK-ko beste gune batzuetan egiten duten antzera.

Helburu horretara heldu edo ez, ULEXek jarraitu egingo du heziketa eta ikerketa militanteko ibilbideak garatzen, gure ingurunean dauden aldaketa sozialerako prozesuen babesean. ULEXek, La Casa Invisible egitura komun eta autonomoaren zati gisa, ez dauka izateko arrazoirik, ez bada ehun sozial kritikoaren elementu estrategiko bat, ehun sozial kritiko horri laguntza eta adorea ematen diona une oro.

Curro Machuca



Nortzuk gara • Universidad Popular de Palencia
Hemen aurkituko gaituzue • www.univpalencia.org

Palentziako Herri Unibertsitatea: herritarrek ezagutzak partekatzekeo gunea

Bizitzan Zehar Ikastea kalitatezko hezkuntza lortzeko gako eta helburuak garatzen laguntzera egon behar da zuzenduta. Kalitatezko hezkuntza horrek prestakuntza pertsonala zein tekniko barne hartuko ditu, bai eta prestakuntza sozial eta komunitarioa ere. Izan ere, horrek komunitatean bizitzeko gaituko gaitu, eta, beraz, eraldaketa sozialerako, kohesiorako tresna gisa erabiliko da hezkuntza, eta bizitza demokratikoa sustatuko du.

Ikuspuntu pedagogikotik, nahitaezkoa da sistemak berrantolatzea; gizakiak eskubidea dauka bizitza osoan zehar ikasteko eta dauden hezkuntzaren modalitate guztiak erabiltzeko. Hori dela eta, beharrezkoa da hezkuntza pertsona guztien zerbitzura jartzea, eta pertsona horiek guztiak, berdintasunez, subjektu aktibo izatea euren ikasketa zein eraldaketa pertsonal eta sozialeko prozesuan.

Sarrerako premisa horiek aipatu ondoren, Palentziako Herri Unibertsitatearen (PHU) Hezkuntza proiektua aurkeztuko dugu. Beste herri unibertsitate batzuen aro berekoa, laurogeiko hamarkadan sortu zen kezka kulturalak zituzten pertsonen eskutik, eta prestakuntzarako, elkarbizitzarako eta kultura garatzeko espazioa izateko asmoz. Elkarrekin kultural gisa eratuta dago, eta helduentzako etengabeko prestakuntzako proiektu bat eman nahi dio Palentziari, herritarrei aukera emango diena jakintzaren beste arlo batzuetan murgiltzeko eta gaitasun batzuk eskuratzeko. Horrela, errazago izango zaie munduan zer gertatzen den ulertzea, bai hurbileko errealitateari dagokionez zein maila abstraktuago eta globalagoan.

Ikuspegi legeletik, PHUren estatutuetan honela daude zehaztuta xedeak: "hezkuntzaren eta kulturaren bitartez, herritarrek garatzea eta sustatzea,

horretarako, jarduera soziokulturalak garatzen dituzten erakundeak sortzea eta ezartzea sustatuz".

PHUren hastapenak urbanoak izan baziren ere, laster hedatu zuten haien proposamena hainbat herritara, eta, hori dela-eta, probintzia osoan eragin nahiko handia dauka.

Palentziako Herri Unibertsitatea deskribatzea hezkuntza proiektu bat deskribatzea da, PHUk partekatzen dituen eta erreferentetzat dituen erakundeen gidalerroei eta postulatu teorikoei jarraituta jaio eta garatu dena, eta, horrela, esku hartzen duen errealitatean kokatuta dago. Erreferente horietako batzuk hauek dira: Hanburgoko Adierazpena, 1997koa; Herri Unibertsitateen Espainiako Federazioa; Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoa, eta Gaztela eta Leongo Helduen Hezkuntzari buruzko 3/2002 legea, 2002koa.

PHUren helburuak, hezkuntza proiektuan adierazten denez, lotuta daude herritarren parte-hartze soziala sustatzearekin; izan ere, hori da oinarritzko baldintza demokrazian sakontzeko, eta komunitatea sozialki, kulturalki, hezkuntzaren alorrean eta ekonomikoki garatzeko. Parte hartzeak esan nahi du, baita ere, ekiteko beharrezko baliabideak edukitzea eta erabiltzen jakitea.

Proiektu zabal eta anitza da; horrenbestez, premiazkoa da antolakuntza eta pedagogia egitura funtzionalak izatea. Zortzi ezagutza arlotan banatuta dago, eta xedea da guztientzako orekatua den erantzuna ematea. Hona hemen aipatutako zortzi arloak: Hezkuntza, Esku-hartze soziala, Historia eta Kultura tradizionala, Arteak, Sustapena eta Laneari txertatzea, Osasun integrala eta Jarduera fisikoa, Ingurumena eta Kultur zabalkundeak.



Judith Quintano Nietok utzitako irudia.

Metodologia orokorra zentroaren hezkuntza proiektuan orientaziozko printzipioak erabiliz adierazita dago, hau da, gida bat emanez. Era horretan, arlo guztietako irakasle guztiek, ikasgelan daukaten autonomia alde batera utzita, erreferente berberak dituzte lana egiteko orduan, eta, horrenbestez, hezkuntza-jarduera guztietan proiektuaren filosofia zabaltzen da.

Metodologiari dagokionez, PHU edukiei eta egiteko moduei dagokienez koherente izaten saiatzen da, alegia, *zer* eta *nola* erakutsi, eta gelan kultura kooperatibo bat sortzean jartzen du arretagunea, horrek erraztuko baitu era naturalean eta egunerokoan berdinen arteko harreman sozialak garatzea, eta, gero, hori eremu sozialetara estrapolatuko litzateke.

Arloen ugaritasunak aukera ematen du materia ugari jorratzeko, eta azpimarratu beharreko zerbait iruditzen zaigu nola, taldeetan, gai asko ikasleen esperientzia, arazo eta interesetatik abiatuta sortzen diren. Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan balioa ematen zaio taldeak ezagutza berriak eraikitzerakoan eragina izateari. Hala, aintzat hartzen dira ikasleek ikasgelara dakartzaten ezagutzak eta jakintza herrikoiak, eta akademikoagoak diren ezagutzekin harremanetan jartzen ditugu; biak elkartzen dira ezagutza eta ikasketa berriak sortzeko.

PHUren oinarrizko premisa bat da pertsona guztiek –kapital kulturala, soziala, politikoa, etab. edozein dela ere– jakintza dutela, eta, hezkuntzaren bidez, elkarrizketa eta erabaki kolektiboek esker, pertsonak ezagutza transmititzen eta sortzen dute. Hala, lan egiteko modu eta espazio batzuk sortzen dira,

ez daudenak lotuta hezkuntzaren gaineko ideia erreproduktionista eta klasikoarekin.

Era berean, PHUtik gaurkotasuneko gaiak sakon eztabaidatzeko saioak proposatzen dira. Gai horiek normalean lantzen ez badira ere, era zuzenean eragiten dute parte-hartzaileen eguneroko bizitzako egiteko eta pentsatzeko moduetan.

Halaber, proiektuaren printzipio filosofikoei eta balioei arreta jarritz, ikuspegi metodologiko horrek esan nahi du errespetuzko jarrerak sortzea harreman sozialetan; esan nahi du elkarbizitzako esperientziak sustatzea, eta horietan sortuko diren ezagutzen muinean berdintasuna, elkartasuna eta justizia soziala egongo da. Era horretan, errazagoa da parte-hartzaileek konpromiso pertsonal eta hiritarra hartzea, gero elkarbizitzarako forma hobeetan eta gizakion duintasunarekiko errespetuan gauzatuko dena.

Herri unibertsitateak, beraz, kulturaren, kultura bidezko eta kulturarako lekuak dira; herritarrak dira protagonista. Herri unibertsitateak herritarren elkarbizitzarako laborategi bihurtzen dira, eta bizitzeko era berriak imajinatzen dira, zeinetan pertsonak elkarrekin bizi daitezkeen eta ideia berriak, jakintza berriak eta bizi diren mundua errazago ulertzeko erantzunak sor ditzaketen era kolektiboan.

Judith Quintano Nieto eta Agustín González Gutiérrez.
PHUko irakasleak

Oharra: PHUren Hezkuntza proiektua *Miguel Hernández. Premios 2009* argitalpenean (Hezkuntza eta Kultura Ministerioa) argitaratuta dago, urte horretan erakundeari lehenengo saria eman ondoren.

begirada konprometituak

zinema
dokumentalak

Izenburua: El cuento de la criada (Telesaila)

Tokia, urtea: Estatu Batuak, 2017

Zuzendaritza: Reed Morano, Mike Barker, Kate Dennis, Floria Sigismundi eta Kari Skogland

Produkzioa: Huluk emana; MGM Televisión / Hulu
(Margaret Atwooden nobelaren egokitzapena)

Iraupena: 60 minutu



Sinopsia. *Etorkizun distopiko bateko diktadura fundamentalista batean, emakume gazte batek konkubina baten gisa bizi beharra du, bere jaunari umeak emateko. Estatu Batuetako presidentearen eta Kongresuko gehiengoaren hilketaren ondoren, balio puritanorik zorrotzetan oinarritutako erregimen teokratiko bat ezarri dute herrialdean. Une horretatik aurrera, Amerikako Estatu Batuei Gileadeko Errepublika deitzen diete. Gizarte berri horretan, balio moderno gehienak atzenduta gelditu dira. Emakumea bigarren mailako izakia da, balio bakarra obarioetan duen objektu bihurtuta, Gileaden ugalkortasun arazo bat baitago...* (FilmAffinity).



Izenburua: The Wanted 18

Tokia, urtea: Palestina, 2014

Zuzendaritza: Paul Cowan eta Amer Shomali

Iraupena: 75 minutu

Sinopsia. *Palestinar talde batek 1987ko Intifadaren garaian, Beit Sahourren, esnean oinarritutako negozio lokal bat abian jartzeko egindako ahaleginari buruzko animaziozko dokumentala da. Behi saldoa ezkutatu behar dute, agintari militarrek uste dutelako esnearen sektoreak segurtasun nazionala arriskuan jartzen duela. Agintari militar israeldarren, herriko jendearen, ahots leun eta trakets ez mintzo diren behien ikuspuntuetatik kontatzen dut istorioa. Ume nintzela entzun nuen lehen aldiz istorio hau. Komikiekin eta superheroiekin obsesionatuta nengoen. Beit Sahourri buruzko istorioen liburu bat aurkitu nuen, eta superheroiak nire familiako kideak izan zitezkeen komiki bat irakurri nuen lehen aldiz; edo are neu ere izan nintekeen komiki hartako superheroia, edo nire lehengusuak. Batere graziaz ez duen okupazio bati buruzko film dibertigarri bat egiteko ideiak izutu egiten ninduen, baina pentsatu nuen umorea dela marrazkilari batek gauzak ikusteko daukan modua. Are gehiago, uste dut bere zauriez barre egiten ez duen herriak ezin izango dituela zauri horiek sendatu. Oinarritik egindako borrokari egindako omenaldia da, aktibismoa, herriak desobedientzia zibila praktikan jartzea erabaki zuen une batean (Amer Shomali, The Wanted 18 filmaren zuzendaria, Zinema Sozialaren eta Gizarte Eskubideei Buruzkoaren Asturiasko V. Jaialdiari buruzko Perroflauta newsen argitaratua, 2017ko urtarrila).*

argitalpenak



Jone Martínez-Palacios (coord.)

PARTICIPAR DESDE LOS FEMINISMOS

Ausencias, expulsiones y resistencias

Icaria

Izenburua: Participar desde los feminismos. Ausencias, expulsiones y resistencias

Egilea: Jone Martínez-Palacios (koord.)

Haek hartu dute parte: Margaret Bullen, M. Vanesa Ripio Rodríguez, Ane Larrinaga Renteria, Mila Amurrio Velez, Laura Gómez Hernández, Patricia Martínez García, Delicia Aguado Peláez, Andere Ormazabal Gaston, Izaro Gorostidi Vidaurrezaga, Zuriñe Rodríguez Lara, Nora Miralles Crespo, Alicia Suso Mendaza, Miren Arbelaitz García eta Igor Ahedo Gurrutxaga.

Lugar, año: Bartzelona, 2017

Argitaletxea: **Icaria**

Sinopsia. *“Parte-hartzearen aro globalean”, liburu honetan agertzen den kezka da herritarren parte-hartze prozesuetan sor daitekeen tirania, eta lanak hori indargabetzeko aukerak ikertzen ditu. Horretarako, teoria feministaren balio politiko kritikoa aintzat hartzen du, helburu hauekin: lehenik, menderatzea hautematea, eta, bigarrenik, hori progresiboki indargabetzeko proposamenak bilatzea. Bi helburu horiek zehazten dituzte liburuaren bi zatiak.*


Hurbilketa desberdinak eginda, Participar desde los feminismos lanaren egileek azaltzen dute parte-hartzearen praktikako zer elementu eta egiturak eragiten duten menderatze-sistemak (generoarena, klase sozialarena, arrazarena, adinarena, sexualitatearena, etab.) erreproduzitzea. Era berean, menderatze horrekiko erresistentzia-praktikei buruzko adibideak eskaintzen dituzte, inspirazio-iturri izan daitezkeenak parte-hartze prozesu inklusiboak diseinatu nahi dituztenentzat (Jone Martínez-Palacios).

Título: Barbarismos queer y otras esdrújulas

Egilea: Lucas R. Platero Méndez, María Rosón eta Esther Ortega (eds.)

Lekua, urtea: Bartzelona, 2017

Argitaletxea: **Edicions Bellaterra**



Barbarismos queer y otras esdrújulas

Edicions Bellaterra

Sinopsia. *Nola ulertzen eta erabiltzen ditugu aktibismoan, praktika artistikoetan, azterketa feministetan eta sexualitateari buruzkoetan sortzen diren, eta, posizio subalternoetatik, gaztelaniara itzulita badaude ere, zailtasuna duten zenbait hitz?, edo beste hizkuntza batean esaten dira? Barbarismos queer y otras esdrújulas testu kolektiboa da, eta, begirada kritiko batekin, erabiltzen dugun hizkuntza nola sortzen den pentsatzeko beharretik sortu zen. Izan ere, jakintzaren subjektu, objektu eta ekoizleak gara, eta, aldi berean, jakitun gara prozesu kolonialetan eta asimilaziokoetan murgilduta gaudela. Barbarismo horiek, asko anglizismoak, aztertzen dituzten berrogeita hamahiru sarrera eskaintzen ditugu. Definizio inperfektu eta amaitu gabeak zein hitzen erabileraren eta hizkuntza eta kulturen arteko bidaien historia eskaini nahi dituzten espezialistek idatzi dituzte sarrerak, eta jakin-mina piztea eta eztabaidarako abiapuntu posible izatea dute helburu (Lucas R. Platero Méndez).*

erakundeak

Erakundea: Transnational Institute (TNI)

Eragin-esparrua: Herbehereak, Estatu Batuak eta Erresuma Batua

Webgunea: www.tni.org/es



Borroka idealak. TNI NBEren ECOSOCek 1974az geroztik izaera aholku-emaile bereziko erakunde gisa aitortutako GKEa da, irabazi asmorik gabeko fundazio gisa dago erregistratuta Herbehereetako Merkataritza Ganberan, eta ongintzako erakunde izaera du Herbehereetan, Estatu Batuetan eta Erresuma Batuan. TNIren misioa da nazioarteko mugimendu sozialak indartzea, arazo globalentzako politika eta konponbide komunitan oinarritutako aldaketa progresista eta demokratikoa bultzatzea ahalbidetuko duten ikerketa zorrotzekin, analisi ongi oinarrituekin eta proposamen eraikitzaileekin. Horrenbestez, TNIk mugimendu sozialen, akademiko engeiatuen eta politiken arduradunen arteko lotura-lana egiten du.

"Estado del poder" urteroko txostenaren seigarren aleak enpresa handiek eta elite pribilegiatuak beren agintea "naturala" eta "atzerabueltarik gabekoa" dela itxuratzeko erabiltzen dituzten prozesu kulturalak aztertzen ditu. Horrez gain, mugimendu sozialek sormena, artea eta indar kulturalak erresistitzeko eta eraldaketa sozial eta ekologiko iraunkorra eraikitzeko nola erabil daitezkeen ere ikertzen du. Eskuragarri hemen: <www.tni.org/estado-del-poder-2017>.



Izen Kolektiboa: JASS Asociadas por lo Justo

Eragin-esparrua: Bost kontinentetan egiten du lan (27 herrialde). Eta 4 eremutan antolatua dago: Mesoamerika, Afrikako hegoaldea, Asiako hego-ekialdea eta Eskualdeartekoa.

Webgunea: <https://justassociates.org/es>

Borroka idealak. JASS 2002an sortu zen, epe luzeko konfiantza eta solidaritate politikoko harremanetan oinarrituta, eta abiapuntutzat aldaketa eragiteko ideia partekatuak zituela. Kideak aktibistak eta herri-hezitzaileak zein akademia-hezitzaileak dira, justizia sozialaren eta giza eskubideen aldeko urteetako borroka komunean jasotako eskarmentuak lotuak.

Justiziaren ikuspegi feministak inspiratuta, planeta osasungarriago batean gizarte berdintasunezkoagoak eta demokratikoagoak sortzen laguntzeko botere-forma eta botere-praktika berriak eraikitzea ahalbidetzen dute. JASSek agenda bateratu batekin arazoaren konponbiderako antolatutako emakumeen botere potentziala eraikitzeko lan egiten du, eta aldaketa esanguratsuak sustatzen ditu. Plataforma honen marko analitikoaren zati handi batek boterea ulertzen eta eraldatzen laguntzen duten metodo argi eta erabilgarriak ditu oinarrian.

ezinbesteko
agenda



Ekitaldia: Latinoamerikako eta Karibeko 14. Topaketa Feminista (EFLAC) "Askotarikoak, baina ez banatuak"

Deialdia: EFLAC antolaketa batzordea

Lekua eta data: Rural del Prado (Uruguai). 2017ko azaroaren 23tik 25era

Informazio gehiago: <http://14eflac.org>

Topaketaren helburu nagusia Latinoamerikan demokrazia indartzen laguntzea da, emakumeen giza eskubideak ikuspegi feminista batekin txertatuta Estatuaren eta gizartearen agendan, horretarako Latinoamerikako eta Karibeko mugimendu feministaren askotariko adierazpenen arteko eztabaidarako eta topaketarako espazioa eskainiz, gizarte zibil antolatuaren parte gisa.

Ardatz tematikoak: Gorputzak, subjektibitateak eta eskubideak; Arrazakeria eta diskriminazioa; Ekonomia feministaren desafiokoak eta perspektibak; eta Demokrazia, Estatu Laikoa eta fundamentalismoak.



Ekitaldia: Ingumenaren eta Gizartearen XII. GEMAS'2018 Tailerra. "Ingurumenaren aldaketa globala: Borrokak eta alternatibak Gure Amerikatik Bizitzaren Jasangarritasunerako"

Deialdia: Kubako Errepublikako Zientzia, Teknologia eta Ingurumen Ministerioko Filosofia Institutuko Ingurumen eta Gizarte Ikasketa Taldea eta Herriaren Lagunen Elkarte Ekonomikoko Ingurumen Saila

Lekua eta data: Habana, Kuba. 2018ko maiatzaren 29tik 31ra

Informazio gehiago: www.filosofia.cu/site/evento.php?id=65

Mende hau krisi askorekin hasi zen: energetikoa, ekonomikoa, elikadurakoa, zainketetakoa, ekologikoa, klimatikoa, finantzarioa eta abar. Agertoki horrek begiradarik kontraesankorrenak batzen ditu, aurreikuspen grisetatik emantzipazio gorri, more eta berdeetaraino. Kolore-paleta horrek bizia ematen dio sentitzeen eta egiteen dibertsitateari, eta, aldi berean, krisi kultural-zibilizatorio batean gaudelako adierazpenera bideratzen du; krisi horretan, erreduktionismoaren gaintik osotasunaren ikuspegia ematen duen interseksionalitateak izan beharko luke lehentasuna.

Eztabaidaren ardatzak: Ingurumen-justizia; Naturaren kolonia-izaera; Klima-aldaketa, zaurgarritasuna, leuntzea eta egokitzapena; Klima-aldaketa eta lurraldea; Garapenarekiko alternatibak; Ekofeminismoa; Ekomarxismoa; Ingurumena eta kooperatibismoa; Hezkuntza eta Ingurumena; eta Ingurumen-politika.

matxino artean
en rebeldía

OBEDITUZ AGINDU

MANDAR
OBEDECIENDO

No volem anar a la universitat, volem que la universitat s'aixequi a les nostres comunitats, que ensenyi i aprengui al costat de la nostra gent.

No volem entrar en competències científiques i tecnològiques, aquestes que tant entusiasmen a les universitats públiques i privades, per veure quina màquina i quin maquinista són els millors; volem aprendre i fer ciència i tecnologia per guanyar la única competència que val la pena: la de la vida contra la mort.

En resum, volem entendre el món, conèixer-lo. Perquè només si el coneixem, podrem fer-ne un de nou, un de més gran, un de millor.

Algunes Primeres Preguntes a les Ciències i les seves Consciències
Des del CIDECI, Unitierra, Chiapas, Mèxic, Latinoamérica,
Planeta Terra, Sistema Solar, etcètera.
Mèxic, 26 de desembre del 2016

